

**HEZKUNTZA EMOZIONALA GORPUTZ
ADIERAZPENAREN BIDEZ LANTZEKO
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Martín Triviño, Kevin

ZUZENDARIA: Duque Ingunza, Ainara

2020

LABURPENA

Orain arteko hezkuntzan egondako lanketa emozionalaren hutsunearen ondorioz, lan honen bitartez, hezkuntza emozionala sustatzen duen proposamen bat egitea izan da helburua. Horretarako, Gorputz Hezkuntzako saioak erabili dira 9-10 urteko ikasleekin, non, Gorputz adierazpena bitartekari gisa erabilia, konpetentzia emozionala landu den. Egindako proposamena sei saioz osatutako sekuentzia didaktiko batek osatzen du, martxan jartzeko aukera izanik. Unitate didaktikoa sortzeaz gain, martxan jarri eta bertatik emaitza zein ondorio anitzak eskuratu ahal izan dira, hala nola, ikasleek beraien ikaskuntza prozesuan zehar hezkuntza emozionala eta konpetentzia emozionalaren gaineko lanketa urria. Hezkuntzak jarraitu beharreko curriculumean, emozioak bere tokia izatearen garrantzia goraiatzeko da, heziketa, lanketa emozionala eta garapen integrala lortzeko asmoz.

Hitz gakoak: Hezkuntza emozionala, konpetentzia emozionala, emozioak, Gorputz adierazpena, Lehen Hezkuntza, Ebaluazioa.

RESUMEN

Dada la carencia de la educación emocional en las aulas, el objetivo principal de este trabajo es hacer una propuesta en forma de unidad didáctica para formar a los alumnos sin dejar de lado en el ámbito emocional. Para ello, se propone una secuencia didáctica de seis sesiones, llevada a cabo con niños y niñas de 9 y 10 años, en la cual ha sido utilizada la expresión corporal como medio en las clases de Educación Física. Amén de crear la unidad didáctica, esta se ha podido llevar a cabo, obtener resultados y consecuencias como la escasez con la que se ha trabajado el ámbito emocional en el aula a lo largo de su proceso académico. Por eso, la educación emocional merece tener su espacio en el currículum escolar, para poder lograr una educación de calidad y el desarrollo integral de los alumnos.

Palabras clave: Educación emocional, Competencia emocional, emociones, Expresión corporal, Educación Primaria, Evaluación.

ABSTRACT

Given the lack of emotional education in classrooms, the main objective of this work is to make a proposal for a didactic unit to train students without neglecting the emotional sphere. For this, Physical Education sessions were used with students aged 9-10, in which using body expression as a means, emotional competence was developed. The proposal is made up of a six-session didactic sequence, which has been able to be carried out, obtaining results and consequences such as the scarcity with which the emotional field has been worked in the classroom throughout its academic process. For this reason, emotional education deserves to have its place in the school curriculum, in order to achieve a quality education and the integral development of students.

Keywords: Emotional Education, Emotional Competence, Emotions, Body Expression, Primary Education, Assessment.

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| SARRERA..... | 4 |
| 1. MARKO TEORIKOA..... | 5 |
| 1.1 Garapen emozionala | 5 |
| 1.2 Adimen emozionala..... | 7 |
| 1.3 Hezkuntza emozionala..... | 9 |
| 1.3.1. Hezkuntza emozionala..... | 9 |
| 1.3.2. Konpetentzia emozionala..... | 9 |
| 1.3.3. Konpetentzia emozionala hezkuntzan..... | 11 |
| 1.4 Emozioak eta Gorputz Hezkuntza..... | 12 |
| 2. HELBURUA..... | 16 |
| 3. METODOA..... | 17 |
| 4. UNITATE DIDAKTIKOA..... | 17 |
| 4.1. Izenburua, gaia, maila, saio-kopurua | 17 |
| 4.2. Unitate didaktikoaren helburu nagusia..... | 18 |
| 4.3. Arazo-egoera | 18 |
| 4.4. Oinarrizko konpetentziak | 18 |
| 4.4.1. Zeharkako konpetentziak | 19 |
| 4.4.2. Oinarrizko konpetentziak | 19 |
| 4.5. Helburu didaktikoak | 19 |
| 4.6. Edukiak | 20 |
| 4.7. Jardueren sekuentzia..... | 20 |
| 4.8. Saioen kronograma | 21 |
| 4.9. Irizpide metodologikoak..... | 21 |
| 4.10. Jarduerak..... | 23 |
| 4.11. Ebaluazioa..... | 29 |
| 5. EMAITZAK..... | 30 |
| 5.1. Autoebaluazioen emaitzak..... | 30 |
| 5.2. Koebaluazioen emaitzak..... | 33 |
| 5.3. Berdinen arteko ebaluazioen emaitzak..... | 33 |
| 5.4. Heteroebaluazioaren emaitzak..... | 35 |
| 6. ONDORIOAK..... | 36 |
| 7. ERREFERENTZIAK..... | 40 |
| 8. ERANSKINAK..... | 43 |

SARRERA

Gaur egun, hurrek, gazteek zein helduek, emozioak eta nahiak plazaratzeko izan dezaketen zailtasunak ez dira urriak. Askotan, pentsatzen dena, sentitzen dena, nahi dena, etab. adierazteko zailtasunak handiak dira eta hori errazteko lanketa bat egon behar da. Egungo hezkuntzaren helburu nagusietako bat, ikasleen garapen integrala lortzea da (Pastor et al., 2016), hau da, alderdi kognitiboa, alderdi soziala, alderdi afektiboa eta alderdi motorra lantzea dena. Hori horrela izateko, beharrezkoa da guzti horien lanketa egitea, alderdi afektiboa alde batera utzi gabe. Izan ere, alderdi emozionalaren lanketa egiten dela esan arren, errealitatea kontrakoa da eta landuz gero, zeharkako modu batean eta benetan behar duen denbora eskaini gabe egiten da.

Horregatik, lehenik eta behin alderdi emozionalak benetan duen garrantzia emateagatik hasi beharko litzateke lanketa hau eskolako dozentek direnen partetik eta benetan alderdi hori lantzeko prest daudenean, hezkuntza emozionala beraiein programetan sartzeko unea iritsiko da. Jarraitu beharreko curriculumaz aztertuz gero, hezkuntza emozionalari dagokionez, hutsunea nabaria da. Emozioen lanketa, edozein ikasgaitan eman daiteke eta horrek asko erraztu dezake honen lanketa, interdiziplinarteko alderdi bat izan daitekeelako. Gorputz Hezkuntzari dagokionez, baliabide egokia izan daiteke lanketa hori egiteko, emozio eta sentimenduak modu inpulsiiboan azalaratzen direlako. Horretarako, Gorputz Adierazpena bitartekari gisa erabiltzea oso baliagarria dela azpimarratzekoa da, nobere nahiak, sentimenduak eta emozioak modu ezberdinetan plazaratzeko eskaintza aberatsa egiten duelako, beste zenbait onuren artean.

Azken hamarkadetako aditu anitzen iritzi eta ideien bilaketa eta azterketa egin ondoren, alderdi emozionalak benetan duen garrantzia eta horrek suposatzen duen lanketaren gaineko kontzientzia eraikitzen hasi beharko lukete ikastetxeetan eta ikastoletan. Lan hau, hezkuntza emozionalaren inguruan arituko da, kompetentzia emozionalak jorratuz. Horretarako, alde aurretik aipatutako Gorputz Hezkuntzako saioak erabil dira, zeinetan, bitartekari gisa Gorputz Adierazpena erabili da esku hartzea diseinatzeko, martxan jartzeko eta ondoren ebaluatu ahal izateko. Bertatik, emaitza eta datuak modu grafiko eta kuantitatiboan eskuratu ahal izan dira lanaren helburuak bete diren ala ez jakiteko eta hobetzeko alderdiak zeintzuk diren identifikatzeko.

Aipatu beharra dago lan hau puntu eta azpipuntu ezberdinez osatuta dagoela, non, hasteko, oinarri teoriko bat egin da, aditu anitzen ideia zein ikuspuntu aipatzen diren gaiarekin bat datozenak. Ondoren, lanaren helburu nagusia eta erabilitako metodologia zein den adierazten da. Hori atzean utzita, aurrera eramandako proposamen didaktikoa dago eta amaitzeko, bertatik ateratako emaitzen azterketa eta ondorio nagusiak azpimarratzen dira.

1. MARKO TEORIKOA

Emozioak gizakiak egunerokotasunean bizirauteko, komunikatzeko eta ikaskuntza prozesua sendotzeko erabiltzen dituen prozesu inkontzienteak dira. Emozioak prozesu kognitibo ororen oinarritzko ezaugarriak eta sentimenduen euskarriak dira. Emozioen araberakoa izango da irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatea, hau da, emoziorik gabe ez dago ikaskuntzarik. Emozioei esker, gizakiak jakin-mina eta berria den guztiarekiko interesa dauka, ezinbestekoa dena ikaskuntza esanguratsua lortzeko. (Mora, 2017).

Bisquerraren (2011) hitzetan, emozioen sailkapenean bi multzo bereizten ditu, emozio positiboak eta emozio negatiboak. Emozioen sailkapena egiteko, bi irizpide nagusi daude. Alde batetik, gertutasunerako joera eragiten duten emozioak: poztasuna, maitasuna, zorientasuna, etab. (positiboak). Bestalde, saihesteko joera eragiten dutenak: beldurra, depresioa, lotsa, tristura, asperdura, etab. (negatiboak). Teoria hau aplikagarria da hezkuntzan. Ikasleek eta familiek sentitzen dituzten emozioak negatiboak badira, hezkuntza hori edo eskola hori sahiesteko joera izango dute. Ordea, sentitzen dutena positiboa bada, gertutasunerako joera izango dute, eroso sentitzen direlako. Beraz, ikaskuntza prozesua esanguratsua izateko, ezinbestekoa izango da emozio positiboak transmititzea, intrinseko motibazioa pizteko. Horretarako bide bakarra estrategia eraginkorren bilaketa eta aplikazioa izango litzateke, gertutasuna eragiten duten emozioak aktibatuz.

1.1 GARAPEN EMOZIONALA

Haurren ikaskuntza prozesua bere bizitzako lehen urteetan hasten da. Urte horietan, haurra familiareko testuinguru batean hezten da eta horrek familia erreferente bezala izatea eragiten du haurrengan, hala nola, sozializaziorako gaitasuna garatzeko eta konpetetzia emozionala garatzeko. Arlo ugari dira familiak betetzen dituenak haurren garapenaren hasieran, non, garrantzia handiagoa daukan familiak eskaintzen duen testuingurua, haurren ezaugarri psikologikoak baino (Darling eta Steinberg, 1993).

Haurrak Lehen Hezkuntzako urteetan beraien emozioen gaineko kontzientzia eraikitze gaitasuna trebatzen dute, hau da, beraien emozioen eta gainontzekoen emozioen artean dagoen konexioen zergatia ulertzen hasten dira. Horrez gain, gainontzekoek aurpegiaren bidez adierazten dutena ezagutzen hasten dira eta horren arabera jokabide bat edo beste izan pertsona horrekiko (Izard, 1994).

Haurren garapenaren eragina duten hiru arlo azpimarratu behar dira. Hiru faktore horiei esker, konpetentzia emozionala modu espezifikoago batean ezagutzeko aukera dago: Ulermen emozionala, erregulazio emozionala eta empatia (Lopez eta Vesga, 2009).

Ulermen emozionala

Ulermen emozionala adin oso txikietan ematen hasten da. Eskolaurreko garaian, haurrek egoera eta testuinguru anitzetara lotuta daude eta horiek emozio ezberdinak eragiten dituzte. Ondorioz, haurrek beraien emozioak erregulatzen hasten dira egoerara moldatzeko eta beraien helburuak edo asmoak lortzeko. Garapenaren aurrera pausu handi bat dela esaten da, haurra beste pertsona baten nahiak aintzat hartzen hasten denean. Izan ere, emozioa ez da azaltzen nahia eta egoera objektiboaren arteko erlazioaren arabera, baizik eta nahia eta norberak egoera interpretatzen duen moduaren arabera, kasu honetan haurrak egiten duen interpretazioa (Lopez eta Vesga, 2009).

Anbibalentzia emozionalaren ulermena, ulertzeko, ezagutzeko eta emozioak alde batera uzteko eskuratzen den gaitasun bezala definitu daiteke, horiek negatiboak edo positiboak izan daitezke. Haurrak esperientziak eta bizipenak emozio ezberdinen konbinazioa eragin dezaketela ulertzera heltzen da eta ulermen hori da pisu afektibo handiko harremanak maneiatzeko gako nagusietako bat (Brown eta Dunn, 1996).

Hiru eta bost urte bitarteko haurrengan, ikusi daiteke emozioak dituen egoera bat ulertzeko ez dutela analisi objektiboa erabiltzen egoera horrekiko. Haur batentzat, erantzuna ona edo txarra da, ez dago graduaziorik, aukera anitzik, hau da, ez dago ikuspegi ezberdinen maneiua (Camras, 1994). Arrazoi honen eraginez, haurrek pertsonengan emozio eta sentimenduak koordinatzeko zailtasunak dituzte, baina ez egoerekiko. Haur batek, egoera batek aldi berean emozio positibo eta negatiboak eragin dezakeela ulertu dezake, baina, zaila egiten zaie ulertzea pertsona batek ere emozio positiboak eta negatiboak eragin diezaikeela.

Erregulazio emozionala

Haurrak izandako bizipenak gaitasun jakin batzuen garapena eragingo dute eta horrek emozioen erregulazioa egiteko ahalmena ere suposatzen du. Haurren adina gora doan heinean, eskakizun sozialei aurre egiteko trebetasunak eskuratzen ditu, esaterako sentitzen duenaren zergatia ulertzea eta horren aurrean izan beharko duen erantzun egokia zein izan beharko den jakitea, aldezturik inguruan duena ebaluatuz.

Informazioa prozesatzearen ikuspegitik, emozioa errealitatearekin kontaktuan jartzen gaituen bidea da. Hori lortzeko, emozioa malguta izateaz gain, egoerarekin bat joan behar du. Haurrak emozioa adierazi baino lehen, ingurunearen ebaluazioa egin behar du,

adierazpen hori ahalik eta modu egokienean plazaratzeko. Prozesu guzti hori egiten duenean, haurrak eskuratzen duen garapen mailak eta introspekzioak esaten dio zein erantzunkizun izan behar duen gainontzeko pertsonekin eta bertan ikusten da haur baten erregulazio emozionala (Harris, 1989; Eisenberg et al., 2003). Hori lortzeko, haurrak lehenik eta behin duen helburua jakin beharko du eta behin hori jakinda, estrategia ezberdinak garatzen joango da lortu nahi duenaren arabera. Estrategia horien erabilpenak eta haurren barneratze gaitasunak agerian utziko du emozioen erregulazioaren baliagarritasuna (Dennis, 2006).

Ezagutza emozionalarekin erlazioan egotearen helburu nagusia emozioen adierazpenean trebetasunak eskuratzea da, gogobeteko emaitzak lortzeko ingurunearekin eta noberaren buruarekin (Aluja, del Barrio eta García, 2007).

Enpatia

Enpatia, pertsona batek beste pertsona baten egoera emozionala ulertzeko eta egoera horrekiko erantzunak emateko gaitasuna da. Emozio bat edo emozio ugari eragiten dion pertsonaren aldetik elkarrekiko ekintza dago, modu enpatiko batean (Lopez eta Vesga, 2009). Haurrek garapen etapa ezberdinak lortzen doazen einan, elkarrekiko egiten den enpatia prozesuak ekintza sozialetan parte hartzeko aukerak eskuratzen hasten da, hau da, haurrak egoera ulertzeko gaitasuna eskuratzen du eta horrek eragin dezakeen emozioak beste pertsonarengan, hala nola, zorientasuna, amorrua, beldurra, etab. Beraz, enpatia da pertsonen arteko ulermenean estrategia ezberdinak erabiltzeko aukera eskaintzen digun baliabidea, beste pertsona norberaren buruaren gainetik jarriz (Taylor eta Harris, 1984).


Enpatia, soilik haurrak hiru zentzu eskuratzen dituenen lortu daiteke eta honako hauek dira: norberaren ulermen emozionala, gainontzekoen ulermen emozionala eta norberaren emozioen erregulazioa. Hiru arlo hauek izango dira haurrak bere asmoak eskuratzeko bidea eraikiko dutenak, ekintza afektiboak ebidentzian jarriko dutenak eta emozio ezberdinak sentitzearen zergatia ulertzea eragingo dutenak (Sroufe, 2000)

1.2 ADIMEN EMOZIONALA

Adimen emozionalak historikoki aurrekari anitzak ditu adimenaren ikerketaren inguruan, XX. mendetik hasita, adimen anitzen inguruko ikerketetara heldu arte. Adimen emozionala psikopedagogiaren alderdi garrantzitsuenetariko bat da, konpetentzia emozionalen oinarri delako, hezkuntza emozionalaren erreferentea delako, etab. Adimen anitzaren ideia Salovey eta Mayer (1990) adituekin hasten da eta Goleman-ekin (1995) sakondu. Arrazoi anitzen ondorioz, ideia honek 90. hamarkadaren bigarren zatitik aurrera izan zuen hedapena (Bisquerra, s.d.).

Mayer eta Salovey (1997) adituen esanetan, adimen emozionala honelako ezauagri hauekin definitu daiteke: Hautemateko gaitasuna izatea, zehaztasunez baloratzeko eta adierazteko gaitasuna izatea, pentsamendua errazten duten sentimenduak eragiteko gaitasuna izatea, emozioak ulertzeko gaitasuna izatea, ezagutza emozionala izatea eta emozioak erregulatzeko gaitasuna izatea hazkunde emozionala eta intelektuala eraginez.

Aurreko paragrafoan aipatutakoaren harira, Golemanen hitzetan (1995), adimen emozionalak honako bost puntu hauek ditu oinarri gisa: 1) Emozioak ezagutzea: Momentuko sentimenduak eta emozioak antzemateko gaitasuna izatea. Hori horrela izan ezean, emozio kontrolaezinen menpe gelditzen da pertsona. 2) Emozioen kudeaketa: Emozioak modu egokian eta aproposan erabiltzeko gaitasuna da, emozioen gaineko kontzientzia izatearekin lotura zuzena duena. Harreman interpersoneletako gakoak, haserrea, amorrua eta suminkortasuna eta tankerako emozioen plazaratze prozesua baretzea da. 3) Norbere burua motibatzea: Emozioek ekintzara bultzatzen dute, horregatik, emozioak eta motibazioak lotura dute. Emozioak ezarritako helbururantz bideratzea, motibazioarekin, beharrezkoa da arreta jartzeko, automotibatzeko eta sormenezko jarduerak egiteko. Emozioen autokontrolak inpultsibitatea meneiatzea laguntzen du, helburuak lortzeko ezinbestekoa dena. Aipatutako gaitasunak duten pertsonak, produktibitate maila eta eraginkortasun maila altuagoa izateko joera dute, gaitasun horiek ez duten pertsonak baino. 4) Gainontzekoen emozioak antzematea: Enpatia izatea. Honen bitartez, gainontzekoen beharrak identifikatzeko gaitasuna dute. 5) Harremanak sortzea: Gainontzekoekin harreman osasuntsuak sortzea, esan daiteke, gainontzekoen emozioak kudeatzeko gaitasuna dela. Konpetentzia soziala izatea eta horrek dakarren guztia izateak, modu egoki, leun, atsegin eta eraginkor batean elkarreragiteko gaitasuna ematen du.



1.go grafikoa. Adimen emozionalaren sailkapena

1.3 HEZKUNTZA EMOZIONALA

1.3.1 Hezkuntza emozionala

Hezkuntza emozionala kontzeptua definitzea ez da batere erraza eta ez dago definizio unibertsalik, Bisquerra adituak (s.d.) bere blogean hitz hauen bitartez definitzen du: hezkuntza prozesua, jarraia eta egonkorra, zeinetan garapen emozionala sustatzea da helburua, garapen kognitiboaren osagarria izanik. Bi elementu hauek ezinbestekoak dira haurraren nortasun integrala garatzeko. Horretarako emozioen gaineko ezagutza eta trebetasun anitzak garatzea proposatzen da, pertsonak modu egokiago batean egunerokotasuneko erronkei aurre egiteko. Guzti horrek, ongizate pertsonala eta soziala lortzea du xede nagusizat.

Pertsona orok, haurtzaroan eta nerabezaroran errekurtsoen beharra dauka bizitzak jartzen dizkion oztopoei edo erronkei aurre egiteko. Beraz, esan daiteke, hezkuntza emozionalaren bitartez, pertsonak bizitzako bizipenei aurre egiteko prestatzean eta pertsona bezala garatzean datzala. Horrez gain, hezkuntza emozionala ere tresna bikaina izan daiteke emozioen kudeaketa desegokiaren ondorioz sortu daitezkeen arazoak saihesteko. Jakinaren gainean gaude, gizakiak pentsamendu autosuntsitzaileak eta jarrera desegokiak edukitzeko joera izan dezakeela emozioen erregulazio eta kontrol ezagatik, horren adibide dira droga kontsumoa, biolentzia eta anorexia, beste zenbaiten artean. Hezkuntza emozionalak arazo horiek aldeztu aurretik saihesteko papera hartzen du, baina ez hori bakarrik, giza garapena ere proposatzen du; hau da, garapen pertsonala eta soziala. Ondorioz, esan daiteke egoera horrek bizitzako egoera anitzei aurre egiteko gaitasuna eskuratzeko, jarrera positiboak sustatzea dela bidea. Hezkuntza emozionalak, errendimendu akademikoa eta adimen akademikoa batuz, kompetentzia emozionalak garatzea du helburu. Esan daiteke, adimen emozionala gaitasun bat dela (trebezia eta trebetasuna batzen dituenak); errendimendu emozionala berriz ikaskuntzari egiten dio erreferentzia. Kompetentzia emozionala haur batek errendimendu emozional maila jakin bat ematen duen unean ematen da (Mayer eta Salovey, 1997; Saarni, 1988).


1.3.2. Kompetentzia emozionala

Autore anitzek ikerketak aztertu ondoren, kompetentzia hitza, "kalitatezko eta efektiboak diren jarduerak anitzak egin ahal izateko beharrezko ezagutza, gaitasun, trebetasun eta jarrerak egoki mugiarazteko gaitasuna" bezala definitzen da (Bisquerra eta Perez, 2007). Izan ere, kompetentzia emozionalaren inguruan ikerketa ugari egin diren arren, Bisquerra eta Perezek (2007) honela definitzen dute kontzeptu hau: "beharrezkoak diren ezagutza, gaitasun, abilezia eta jarrera ezberdinen multzoa, fenomeno emozionalak era

egokian ulertu, adierazi eta erregulatu ahal izateko”. Horrez gain, Bisquerra eta Escoda (2007) adituek dioten bezala, kompetentziak bi multzoetan sailkatzen dira, alde batetik kompetentzia tekniko-profesionalak eta bestetik kompetentzia sozio pertsonalak. Hori horrela izanik, esan daiteke kompetentzia emozionala bigarren multzo honetan sailkatzen dela.

Azpimarratzekoa da, kompetentzia emozionalaren garapena hezkuntzaren bitartez ematen dela, baina, betiere hezkuntza emozionala izanez gero. Hezkuntza emozionalaren ardura, kompetentzia emozionalen garapena sustatzea da, ezinbestekoak direnak gaur egun lortu nahi den garapen integralera heltzeko. Ikasleak hezitzeaz gain, pertsonak ere hezitzea da eskolaren helburu, hau da, haurrak bizitzarako prestatzea. Horretarako, oraindik nahiko hipotetikoa den kontzeptua (adimen emozionala) ezin da ukatu, beharrezkoa baita kompetentzia emozionala garatzeko (Bisquerra eta Perez, 2007).

1997 tik, GROPE-en (Grup de Recerca en Orientació Psicopedagògica) Hezkuntza emozionalaren gaineko lanketa bat egiten da, ikerketa eta irakaskuntzan, kompetentzia emozionalak garatzeko asmoz. Talde honek, kompetentzia emozionalak 5 multzoetan banatzen ditu:



2.Grafikoa. Kompetentzia emozionalen multzoak

Bost bloke hauek gainbegiratzeko eta argitaratzeko helburuarekin, Bisquerrak (2003) honela definitzen du hauetariko bakoitza:

1) Kontzientzia emozionala: Norberaren eta besteen emozioen gaineko kontzientzia hartzea da. Horrekin batera, testuinguruaren klima emozionala antzemateko eta horren arabera jarrera egokia izateko trebetasuna edukitzea da.

2) Erregulazio emozionala: Emozioak modu egokian kudeatzeko gaitasuna izatea da. Honek, emozioen, kognizioaren eta jarreraren arteko harremanaren kontzientzia hartzea suposatzen du; aurre egiteko estrategia egokiak izatea, norberak bere buruari emozio positiboak sortzea, etab.

3) Autonomia emozionala: Autonomia emozionala kontzeptu zabal bat bezala ulertu daiteke, non, autogestio pertsonalarekin harremanetan dauden elementuak batzen diren. Horien artean, autoestimua, bizitzarekiko emozio positiboak, ardurak, kritikatzeko gaitasuna, errekursoak eta laguntza bilatzeko gaitasuna, etab.

4) Konpetentzia soziala: Beste pertsona batzuekin harreman onak izateko gaitasuna da. Honek, trebetasun sozialak menperatzea eskatzen du komunikazio eraginkorra izateko, hala nola, errespetua, jarrera sozial egokia, asertibitatea, etab.

5) Bizitarako eta ongizaterako konpetentzia: Egunerokotasunean aurkitzen diren erronkei aurre egiteko gaitasuna izatea da; pribatuak, profesionalak, sozialak... Oztupo horiek gainditzea, noberaren bizitza modu orekatuan eta osauntsuan ordenatzeko aukera ematen du, bizipen positiboak sortzeko erraztasuna emanez.

Orain arte, adimen emozionala, hezkuntza emozionala eta konpetentzia emozionala aztertu eta azaldu dira aurreko paragrafoetan, baina, esan beharra dago, horien arteko lotura handia izan arren, kontzeptu ezberdinak direla. Adimen emozionala psikologiaren esparruari dagikoen eraikuntza hipotetikoa da, Schulze eta Richard, et al. (2005) adituek defendatzen dutena. Hala ere, mahai gainean dagoen eztabaida da adimen emozionalaren existentzia. Izan ere, zalantzan jartzen ez dena konpetentzia emozionala garatzearen garrantzia eta beharra da (Bar-On eta Parker, et al. 2000). Gaitasun emozionalak pertsonaren eta giroaren arteko elkarreraginean jartzen du indarra, ondorioz, garrantzi handiagoa ematen dio ikaskuntzari eta garapenari. Beraz, hezkuntzak izan dezakeen aplikatzeko eraginkortasuna handia izan daiteke. Hezkuntza emozionala, irakaskuntza-ikaskuntza prozesu bezala ulertzen da, konpetentzia emozionalak garatzeko helburua duena (Bisquerra, 2003).

1.3.3. Konpetentzia emozionala hezkuntzan

Puntu honi hasiera emateko, lehenik eta behin aipatu beharra dago irakasleen funtsezko papera konpetentzia emozionala lantzeko ikasgelan. Eskolan landu beharreko konpetentzia izanik, dozenteeek gutxieneko ezagutza izan behar dute gai honen inguruan, emozioen gaineko kalitatezko alfabetizaziorik eta ezagutzarik gabe, ezin delako landu (Abarca eta Sala, 2002; Palomera et al., 2008).

Arlo emozionalaren gaineko jakinmina hezkuntza munduan ez da berria, baina, Europako hezkuntza sistema eta metodologia berritzaileak agertu arte, hezkuntza tradizionalak zuen indarra, non, alderdi afektiboa alde batera gelditzen zen eta garrantzia edukien ezagutzan zentratzen zen (Bach eta Darder, 2002). Norabide honen eragile nagusia, ilustrazioak eragindako "arrazonamendura" bidea izan da.

Honek, ez du esan nahi edukiak alde batera geldituko direla, baizik eta, ezagutza intelektualaren eta alderdi afektibo-sozialaren garapena aldi berean gauzatu behar direla. Egungo gizarteak, hezkuntza prozesu pertsonalizuarekin suntsitzen du eta horrek eragin zuzena dauka haurren garapen afektiboan, lortuko dituen emaitza akademiko eta intelektuelatan eragin negatiboa izanez (Fontaine, 2000).

Aurretik aipatutakoaren harira, irakasleek alderdi afektibo-sozialari ematen hasi diren garrantziak gora egin du modu nabarmen baten, baina oraindik, heziberri (2020) dekretuan alderdi honek ez du bere atala irabazi. Hamaika Oinarrizko zehar konpetentzia eta Disziplinar-teko konpetentzia aipatzen eta sakontzen dira, baina, konpetentzia emozionala aipatu ere ez da egiten. Izan ere, azpimarratzea gustatuko litzaidake, irakasleek jarraitu beharreko Heziberri dekretuan sentimenduak, nahiak eta pentsamenduak adieraztea, entzutea eta kontuan hartzea aipatzen dela, baina, bigarren maila batean.

Hezkuntzan ikasleen arlo emozionalaren garapena eta lanketa pisuzko helburu bat izatea lortzea nahi bada, irakasleen formakuntzaz gain, baliabideak eta tresnak eskaintzea ezinbestekoa da. Horrez gain, benetan duen garrantzia ematen hasi beharko da dekretuan ere, konpetentzia emozionalari bere hutsunea eskainiz eta honen lanketa formal eta egoki bat eginez, eta ez modu transbersal eta bigarren mailako kontu bat izango balitz bezala.

1.3.4 Emozioak eta Gorputz Hezkuntza


Gorputz Hezkuntza egoera motorren bitartez zenbait helburu eta konpetentzia lortzeko xedea duen disziplina pedagogikoa da. Aukeran dauden egoera anitzen artean, ikasgai honetan lehentasuna duen erronka bizipen motorren arteko harremanak eta horrek ikaslearengan eragiten dituen ondorioak aztertzea da (Lagardera, 2003; Mccaughtry, 2004; Parlebas, 2001). Gaur egungo Gorputz Hezkuntzaren gaineko ikuspegiaren arabera, ikasgai honek funtsezko paper bat izan dezake ikasleen ongizate soziala eta emozionala sustatzeko (Bisquerra, 2003; Engeser, et al., 2008). Planteatzen diren egoera motorrak ongizate-esperientziak eragiten badute, hezkuntza-erronka baliagarria da. Ildo horretan, beharrezkoa da elkarrekin lotuta dauden bi errealitate aztertzea: Alde batetik, Egoera motorren ezaugarriak, alderdi motorrean, zein alderdi sozialean oinarrituz (harremanetara eta ikasleen emozioetara bideratuta egon behar dena, egoera motor kooperatiboak erabiliz). Bestalde, Ikaslea eta ikasleak egin behar duen ebaluazio afektiboan indarra jarritz.

Hezkuntza emozionalaren, adimen emozionalaren eta konpetentzia emozionalaren gaineko ikerketa kopurua asko handitu da azken urteetan eta horrek asko aberasten du alderdi honen inguruan egindako lana ikerlari ugarien partetik. Adituen esanetan, emozio positiboak sorrarazten dituzten jolasak dira maila altuagoa lortzea eragiten duten egoera

motorrak. Ambiguoak direnak berriz, intentsitate ertaineko emaitzak eragiten dute eta emozio negatiboek, maila baxuena. Ikasleengan emozio positiboak eragitea denez helburu nagusia arlo honetan, kooperazioan oinarritutako egoera motorrak azpimarratu behar dira. Egoera motor horietan, irabaztea edo galtzea alde batera gelditzen da eta beti helburu komuna da xedea. Duran et al., (2015) eta Lavega et al. (2013) adituek diotenez, egoera motor koooperatiboek eragiten duten emozio positibo maila askoz altuagoa da lehiakortasuna oinarri gisa duten egoera motorrak baino.

Ondorioz, esan daiteke konpetentzia motorra eta emozioen arteko harremana oso estua dela eta banaezinak direla Gorputz Hezkuntzako saioetan (Parlebas 2001). Jolasaren bitartez, egungo hezkuntzak garatu nahi dituen konpetentzia ugari landu daitezke, hala nola, konpetentzia emozionala (Ladino; González-Correa; González-Correa eta Caicedo, 2016). Horregatik, ezinbestekoa da Gorputz Hezkuntzako dozentek Gorputz Hezkuntza emozionalaren gaineko oinarriko ezagutzak izatea (Miralles; Filella eta Lavega, 2007).

Gorputz Hezkuntza emozionala izan daiteke norabide berria, baina, horretarako, ezinbestekoa izango da jolas motorren ezaugarriak eta propietateak aztertzeaz gain, emozioen gaineko ezagutza eta konpetentzia emozionalak menperatzea irakaseleen aldetik (Bisquerra, 2000, 2009).



3. *Grafikoa.* Gorputz Hezkuntza emozionala

Gorputz hezkuntzako irakasgaian, aukera anitzak daude emozien lanketa egiteko, horien artean, Gorputz adieazpena. Gorputz adierazpenak ez du definizio bakar bat, baina, Romero adituak (1999) honela definitzen du: gorputza, mugimendua eta emozioak sustatzen dituen diziplina da, ikasleen garapen motorrean zein psikologikoan arreta jartzen duena. Berriz, Stoken hitzetan (1994), gorputz adierazpena norberaren gorputz eskemaren kontziantzia izatea da, sentsibilizazio progresibo bat lortzeko eta ideia zein sentimenduen plazaratzea lortzeko gorputz atal ezberdinetaz baliatuz. Aipatzekoa da ere, gorputz adierazpenaren bitartez, ahozko komunikazioa ere sendotzeko aukera dagoela, hau da, ahozko komunikazioa gorputz mugimenduen bitartez aberastu egin daiteke, eta are gehiago, ahoz

zailtasunak badaude, gorputz adierazpena tresna bikaina izan daiteke modu egokian erabiliz gero (Sanche, Ordás eta Lluch, 2013).

Ezin daiteke ahaztu heziberri (2020) dekretuak gorputz adierazpenaren inguruan dieona: Adierazpen korporal eta dramatikoek alderdi ludikotik lantzen dute jarduera fisikoaren dimentsio sozioemozional hori. Nork bere burua eta norberaren emozioak ezagutzea eta ulertzea da gainerako pertsonen sentimenduak ezagutu eta ulertzeko bidea, eta bide hori urratu behar da, era berean, harremanak izan eta elkar ulertzeko, helburu komunak lortu eta gatazkak konpontzeko bitartekoak diren aldetik. Horrez gain, konpetentzia motorrean landu eta eskuratu beharreko etapako helburuen artean, 5.enak honako hau adierazten du: Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-bitartekoen berri jakitea, modu estetikoan eta sortzailean landuz, haiek sentitzeko, bizitzeko eta onartzeko, eta mugimendu propio baten bidez pertsonalizatzeko.

Lehen Hezkuntzako 1.go eta 2. zikloko edukiak aztertuz gero, gorputz hezkuntzako 3. multzoari erreparatu behar diogu gorputz adierazpena aztertzeko eta honako eduki hauek lantzea du helburu:

1.go zikloan, 3. multzoa: Gorputz adierazpena eta komunikazioa:

- Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-aukerak ikertzea eta erabiltzea. Gorputza eta mugimendua, adierazteko eta komunikatzeko bitartekoak diren aldetik.
- Euskal dantzen oinarrizko urratsak eta jauziak sinkronizatzea.
- Gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez kanporatzea emozioak eta sentimenduak. Pertsonaia errealak eta fikziozkoak eta haien testuinguru dramatikoak antzeztea. Objektuak, materialak eta haien adierazpen-aukerak baliatzea. Gorputzaren bidezko adierazpenaren eta komunikazioaren bidez gozatzea.
- Gorputzaren bidezko komunikazioa dakarten egoeretan parte hartzea.
- Adierazteko moduen arteko diferentziak onartzea eta errespetatzea.
- Gorputzaren barne- eta kanpo-erritmoak ikertzea eta horiez jabetzea.

2. zikloan, 3. multzoa: Gorputz adierazpena eta komunikazioa:

- Gorputza eta mugimendua. Gorputzaren mintzaiararen aukerak eta baliabideak ikertzea eta horien kontzientzia izatea.
- Espazio-denborako egituretara egokitzea mugimendua eta euskal kulturako nahiz beste kultura batzuetako dantzak eta koreografiak egitea.
- Mugimenduak osatzea, erritmoaren eta musikaren harian. Dantza eta koreografia xumeak prestatzea.

- Gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez adieraztea eta komunikatzea emozioak eta sentimenduak.
- Objektu eta materialez lagunduta, errepresentazio eta inprobisazio artistikoak egitea gorputz-mintzairarekin.
- Gorputzaren adierazpen- eta komunikazio-erabilerak balioestea.
- Gorputzaren bidezko komunikazioa dakarten egoeretan parte hartzea eta egoera horiek errespetatzea.
- Generoen desberdintasunen arteko estereotipoek, gorputzaren eta mugimenduen adierazpen-ahalmenen murrizketan duten eragina ikertzea eta horiez jabetzea.
- Gorputzaren barne- eta kanpo-erritmoak ikertzea eta horien gaineko ezagutzan sakontzea.

Ikusi daitekeen bezala, Gorputz adierazpenak irakasle orok jarraitu beharreko dekretuan bere hutsunea du. Emozioen lanketa ere aipatzen da, gorputz adierazpena bitartekari egokia dela uste delako. Hala ere, esan beharra dago, gorputz adierazpenaren bitartez, emozioen zenbait alderdi ez direla jorratuko, hau da, gorputz adierazpenak ez dituela emozioen atal guztiak lantzeko aukera emango, eta are gutxiago, denbora murriztu eta mugatu batean.

Gaur egun, hezkuntza emozionala indarra hartzen ari dela argi dago, geroz eta ikerketa eta planetamendu gehiago eskaintzen direlako honen lanketa aurrera eramateko eskola esparruan. Planteamendu horien aplikazioa egiten da eta ikasleek gai hau jorratzen dute, baina, oraindik ez da modu egokiena bilatu kalitatezko eta modu eraginkor batean hau martxan jartzeko. Lehen hezkuntzari dagokionez, aukerak urriagoak dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan baino, aldeztatik azpimarratutako planetamendu eta programa horiek gehiago bideratu izan dituztelako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara.

Laburbilduz, aipatzekoa iruditzen zait egungo ikastetxe, ikastola eta eskoletan dagoen hutsunea emozioen lanketan. Hala ere, esan beharra dago alderdi emozionalak urteak aurrera doazen heinean, pisua irabazten joan dela hezkuntzan. Horregatik, emozioen lanketan oinarritzen den unitate didaktikoa proposatu eta aurrera eraman dut. Horrez gain, azpimarratzea gustatuko lizaidake emozioen garrantziaren inguruko kontzientzia handitzen doala eta gero eta aditu gehiagok nabarmentzen dute hauen lanketa egiteak dakartzan onurak. Emozioak jakinmina, atentzioa eta interesa piztuta izatearen eragile dira, hala nola, ikasgelan eman daitekeen ikaskuntzaren gainekoa. Azken finean, emozioak dira adimen eta ikaskuntza prozesu guztien oinarria (Mora, 2017).

2. HELBURUA

Ikasleek beraien nahiak, sentimenduak eta batez ere, emozioak gainotzekoen aurrean plazaratzeko zailtasunak izaten dituzte. Horren arrazoi nagusietako bat, emozioak partekatzeko ohitura falta izan daiteke. Eskolako esparru formalean, honen lanketa bigarren maila batean egon da beti eta esan beharra dago, honen lanketa sakon bat egiteko beharra badagoela.

Azpimarratzekoa da, Gorputz Hezkuntza bezalako ikasgai batean, emozioak gehiago adierazten direla edo modu bisualago batean antzematen direla, bertan planteatzen diren jarduerak horrela bultzatzen dutelako. Horregatik, Gorputz Hezkuntzako ikasgaiean ere, emozioen lanketa egitea oinarritzkoa dela pentsatzen dut.

Haurra heldu izatera heltzean, emozioen lanketa egin ezean, heldu izanik ere zailtasunak izango ditu emozioak partekatzeko. Aldez aurretik horren lanketa orekatu eta jarrai bat badago, haur den unetik erraztasun handiagoak izango ditu emozioak eta sentimenduak adierazteko eta are gehiago, gainontzekoenak identifikatzeko, ulertzeko eta horien aurrean enpatikoak izateko jokabide egokia aukeratuz. Hori horrela izanik, garapen emozioanala haurraren garapenerako oso garrantzitsua dela esan daiteke, funtsezko alderdi bat delako heziketan.

Aipatutako guztian aintzat hartuta, eskolaren paperaren garrantzia ezin daiteke gutxietsi, hau da, hezkuntza emozionalaren lanketa beharrezkoa da. Haurraren bizitzaren ehuneko zati handi bat eskola esparruan ematen du, heziketa bat jasotzen eta horregatik, eskolan, hezkuntza emozionalaren lanketa egin behar da, garapen integrala lortzea helburua bada, noski. Hau guztia posible izateko, Unitate didaktiko bat proposatzen da, kompetentzia emozionala lantzea helburu duena. Sekuentzia hau, 4. mailako ikasle talde bakar batekin aurrera eramateko aukera egon da, eta horrek eragindako emaitza zein ondorio aztertzeiko aukera eman du. Alderdi emozionala lantzeko baliabide gisa, Gorputz Hezkuntzako ikasgaia izan da, non, Gorputz adierazpena izango da bitartekaria. Helburu nagusia aintzat hartuta, bigarren mailako helburu batzuk ere izango dituela ezin daiteke ahaztu, hala nola, kompetentzia emozionalen lanketa, emozioen inguruko hausnarketa egitea, emozioak plazaratzeko estrategiak eskuratzea, etab.

3. METODOA

Lagina

Hasteko, lagina 22 ikasleek osatzen dutela aipatu beharra dago. Lan hau aurrera eramanez ahal izateko ezinbestekoak izan diren 9-10 urte bitarteko ikasleen parte hartzea azpimarratu nahi dut. Ikasle horien artean, esan dudana bezala, adinari dagokionez, jaiotze urte berdinekoak dira guztiak, zehazki 2010ekoak. Sexu aldetik, nahiko desorekatuta dagoen ikasgela bat dela esan daiteke, 22 ikasle izanik, 14 neska (%63.63) eta 8 mutil (%36.37) daudelako. Adin horretako haurren ezaugarrietako bat, garapen afektibo eta soziala da, kasu honetan, unitate didaktikoa osatzen duten jarduerak behar bezala gauzatzeko behar dena, hala nola, elkarren arteko konfidantza eta neska eta mutilen arteko harremanak estutzea.

Instrumetua

Erabilitako instrumentuari dagokionez, sortu, aurrera eramanez eta ebaluatu ahal izan dudana unitate didaktiko bat erabili dut. Unitate didaktiko honen helburua hezkuntza emozionalaren lanketa egitea izan da. Izan ere, hurrengo puntuak zehaztuko da saioen sekuentzia honen nondik norakoak.

Testuingurua

Lan honen prozedura azaltzeko, ezinbestekoa da testuingurua zein den azaltzea. Aldez aurretik aipatutako unitate didaktikoa, Gipuzkoako Ikastola elkarteko ikastetxe bateko 4. Mailako talde batekin jarri dut martxan. Bertan, Lehen Hezkuntzako Graduko Practicum III-a gauzatzeko aukeraz baliatuz, proposamena aurrera eramateko askatasuna izan nuen eta horrek lan hau proposamen hutsa ez izatea eragin du, aurrera eramanez ahal izan nuelako. Aukera hori aprobetxatuz, ikasleen ebaluazio jarrai anitzak ere egin dira, landu nahi diren kompetentziak ebaluatzeko eta lortu nahi diren helburuak bete diren edo ez jakiteko. Aurrerago ikusi daitekeen saioen kronograman zehazten den bezala, erabilitako saioak 6 izan dira, 2020ko urtarrilaren 7tik 2020ko urtarrilaren 23ra banatzen direnak. Iraupenari dagokionez, 3 aste behar izan ziren programatutakoa aurrera eramateko, non, aste bakoitzeko Gorputz Hezkuntzako bi saioak (asteartekoa eta ostegunekoa) erabili dira, bakoitza ordu batekoa.

4. UNITATE DIDAKTIKOA

4.1. IZENBURUA, GAIA, MAILA, SAIO-KOPURUA

Aurrera eramango dudana unitate didaktikoa "*emozioekin jolasean*" du izena. Bertan, gorputz adierazpenaren bitartez, ikasleen emozioak plazaratzea eta horren inguruan hausnartzea eta kontzientzia eraikitzea izango da helburua. Horretarako, Haztegi ikastolako

4. maila A aukeratu dut. Bertan, 6 saio eraman ditut aurrera, kontuan izanda, ordu bateko bi saio dituztela Gorputz Hezkuntza ikasgaiean. Ondorioz, 3 aste behar izan nituen nire esku hartzea praktikan jartzeko.

4.2. UNITATE DIDAKTIKOAREN XEDE NAGUSIA:

Emozioak adierazten ikastea eta besteen emozioak identifikatzea eta nahiak ulertzea.

4.3. ARAZO EGOERA

Taula 1. Arazo egoera

| |
|--|
| ARAZO EGOERA |
| IZENBURUA: <i>Emozioak nola adierazi?</i> |
| TESTUINGURUA |
| Pertsona guztiek emozio asko ditugu egunerokotasunean, hala nola, beldurra, poza, urduritasuna, alaitasuna, etab. Ondorioz, hauek nola azalarazi behar ditugun ikasi behar dugu. |
| ARAZOA |
| Ikasleek emozioak adierazteko zailtasunak edo horiek adierazteko modu egokia zein den ez dakite. Arrazoi ezberdinak direla medio, emozioak era batera edo bestera adierazten dira. Gai izango zinateke zuen emozioak eta nahiak modu ulergarri batean adierazteko? |
| ATAZA |
| Abiapuntu bat oinarri gisa hartuta, istorio txiki bat sortu beharko da, non emozio ezberdinak ageriko dira. |

4.4. OINARRIZKO KONPETENTZIAK

Heziberri 2020ko oinarrizko konpetentziak behatuz gero, bi multzo ezberdin daudela ikusi daiteke; alde batetik oinarrizko zehar-konpetentziak, bestalde diziplina bateko oinarrizko konpetentziak. Bi multzo hauek aztertu ondoren, planteatutako unitate didaktikoan zenbait oinarrizko konpetentzia lantzen direla esan dezaket, baina, soilik, bi konpetentzietan jarriko dut arreta, **konpetentzia motorra** eta **elkarbizitza** **konpetentzia**. Unitate didaktiko bat aurrera eramatean, konpetentzia ugari landu daitezke. Baina, lantzeaz gain, konpetentzia horiek ikasleek eskuratu duten ala ez ebaluatu beharko da. Horregatik, landu daitezkeen konpetentziak asko izan daitezkeenez, soilik arreta aipatutako bietan jarriko dut, bi gaitasun horiek eskuratzea izan beharko delako ikasleen helburua. Izan ere, landuko diren konpetentziak honako hauek izango dira.

4.4.1. OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK:

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- *Elkarbizitzarako konpetentzia*
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia
- Izaten ikasteko konpetentzia

4.4.2. DIZIPLINA BATEKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia
- Arterako konpetentzia
- *Konpetentzia motorra*

4.5. HELBURU DIDAKTIKOAK

Taula 2. Helburu didaktikoak

| | |
|----------------------|---|
| HELBURU DIDAKTIKOA 1 | Emozioak ezagutzea, egoera ezberdinen bitartez, gelakideen aurrean adierazteko. |
| EBALUAZIO IRIZPIDEA | Norberaren ahalegina eta taldean ematen diren emozioak identifikatzea eta jardueretan sentitzen duten emozioak plazaratzea. |
| LORPEN- ADIERAZLEA | Antzerkietan bere sentimenduak adierazten ditu. |
| EBALUAZIO-TRESNA | Ebaluaziorako jarraipen orria. / Autoebaluaketa errubrika. |

| | |
|----------------------|---|
| HELBURU DIDAKTIKOA 2 | Ahozko komunikazioa bigarren mailan uztea, gorputz mugimendu eta keinuen bidez, gorputz adierazpena ulertzeko. |
| EBALUAZIO IRIZPIDEA | Talde-konposizioak sortzea ikaskideekin lan eginez, gorputzaren adierazpen-bitartekoak erabiliz, eta estimulu anitzak abiapuntutzat hartuta |
| LORPEN- ADIERAZLEA | Ahozko komunikaziorik gabe, adieraztea eta besteek ulertzea lortzen du jardueretan |
| EBALUAZIO-TRESNA | Ebaluaziorako jarraipen orria. / Ahozko hausnarketa. |

| | |
|----------------------|---|
| HELBURU DIDAKTIKOA 3 | Soinu edo musika erritmoak eramatea, gorputz mugimenduen bitartez, dantzaren bitartez sentitzen dutena plazaratzeko. |
| EBALUAZIO IRIZPIDEA | Jarrera aktiboak izatea, egoera fisikoa oro har hobetzeko, eta jarduerak egitean kontuan hartzea norberaren gorputzaren eta mugimendu-gaitasunaren aukerak eta mugak. |
| LORPEN- ADIERAZLEA | Dantza eta antzerkietan erritmoak eramaten ditu eta emozioak adierazten ditu. |
| EBALUAZIO-TRESNA | Ebaluaziorako jarraipen orria. |

4.6. EDUKIAK

Taula 3. *Edukien sailkapena*

| |
|---|
| LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOKO EDUKIAK (HEZIBERRI 2020) |
| 1. MULTZOA (Eduki komunak) |
| -Gatazkak kudeatzea. -Norberaren gorputza erregulatzea. -Harremanak eta komunikazioa lantzea. -Norberaren komunikazioa erregulatzea (hitzezkoa eta hitzik gabekoa). |
| 2. MULTZOA (Norberaren ezagutza eta kontrola) |
| -Sentsazioak bizitzea eta bereiztea. -Gorputzaren jarrerak ikertzea. |
| 3. MULTZOA (Gorputz-adierazpena eta komunikazioa) |
| -Gorputzaren eta mugimenduaren adierazpen-aukerak ikertzea eta erabiltzea. Gorputza eta mugimendua, adierazteko eta komunikatzeko bitartekoak diren aldetik. -Gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez kanporatzea emozioak eta sentimenduak. -Gorputzaren bidezko komunikazioa dakarten egoeretan parte hartzea. -Adierazteko moduen arteko diferentziak onartzea eta errespetatzea. -Gorputzaren barne- eta kanpo-erritmoak ikertzea eta horiez jabetzea. |

4.7. JARDUEREN SEKUENTZIA

“*Emozioekin jolasean*” izeneko unitate didaktikoa, ordu bateko sei saioz osatuta dago, non, saio bakoitza unitate didaktikoaren fase batean kokatuta egongo den.

-Hasierako fasea: Fase honetan, unitate didaktikoaren lehen bi saioak kokatuko dira, hau da, “*1.Musikarekin adierazten*” eta “*2.Emozioak ezagutzen*”.

-Garapen fasea: Hurrengo fase honetan unitate didaktikoaren hirugarren eta laugarren faseak sailkatuko ditut, hau da, "3.Mugituz dantzatu" eta "4.Antzezten hasten".

-Aplikazio eta komunikazio fasea: Azken fasea, unitate didaktikoaren azken bi saioak osatuko dute, hau da, "5.antzezteko prest" eta "6.Antzeztera".

4.8. SAIOEN KRONOGRAMA

Taula 4. Saioen kronograma

| UNITATE DIDAKTIKOAREN SAIOEN KRONOGRAMA | | | | | | |
|---|--|---|---|---|---|---|
| SAIOA | 1.go saioa | 2. saioa | 3. saioa | 4. saioa | 5. saioa | 6. saioa |
| DATA | 2020/01/07 | 2020/01/9 | 2020/01/14 | 2020/01/16 | 2020/01/21 | 2020/01/23 |
| IZENBURUA | Musikarekin adierazten | Emozioak ezagutzen | Mugituz dantzatu | Antzezten hasten | Antzezteko prest? | Antzeztera! |
| DENBORA | 1h | 1h | 1h | 1h | 1h | 1h |
| EGITURA | -Topagunea. - Ikaskuntzaren eraikuntza. -Agurtze unea. | -Topagunea. -Ikaskuntzaren eraikuntza. -Agurtze unea. | -Topagunea. -Ikaskuntzaren eraikuntza. -Agurtze unea. | -Topagunea. -Ikaskuntzaren eraikuntza. -Agurtze unea. | -Topagunea. -Ikaskuntzaren eraikuntza. -Agurtze unea. | -Topagunea. -Ikaskuntzaren eraikuntza. -Agurtze unea. |

4.9. IRIZPIDE METODOLOGIKOAK

Unitate didaktiko honetan, ikasleek gorputz adierazpena landuko dute, non, emozioak ezagutu, identifikatu eta adierazten ikasiko duten. Horretarako, ikasleek gorputz adierazpena eta emozioak zer diren jakin beharko dute, jarduera ugariren eraginez lortzea helburu izango dena.

Jardueren antolamenduari dagokionez, **zailtasun maila** progresiboki handitzen joango da saiotik saiora, hau da, hasiera batean, animaliak, emozioak, etab. adierazi beharko dute hitzak erabili gabe, eta amaieran ordea, istorio txiki bat adieraztea izango da erronka. Aipatutakoa kontuan izanda, hasierako saioetan, ikasleek dantza eta antzeko jarduerak egingo dituzte, lotsa galtzeko eta gorputz adierazpenarekin lehen kontaktua izateko. Saioak aurrera doazen eanean, antzerki gehiago egongo dira, non ikasleen emozioen adierapena (gorputzaren bitartez) landuko den.

Horrez gain, **metodologikoki**, ezinbestekotzat hartzen dugu ezarritako heburuak ikasle guztiek lortzeko modukoak izatea. Horren ondorioz, ezinbestekoa da ikasleen aniztasunari erreparatzea. Ikasle bakoitzak bere erara egingo ditu ekarpenak unitate didaktikoan zehar, betiere, ikaslea ikaskuntza prozesuaren protagonista izanik, parte hartze aktiboaren bitartez. Gorputz adierazpenean, normala den bezala, ikasle bakoitzak bere

erritmoa izango du, horregatik, batzuk hasieratik lotsarik gabe eta zailtasunik gabe adieraziko dute eta beste batzuei berriz asko kostatuko zaie. Horregatik, irakaslearen rola ezinbestekoa izango da, laguntza behar duten guztiei modu egokian laguntzeko. Erritmo ezberdinak direla medio, ikasle bakoitzak bere mailan beteko ditu helburuak, hau da, batzuk azkenengo saiorate ez dituzte helburuak beteko eta beste batzuk berriz, askoz azkarrago lortuko dituzte unitate didaktikoaren helburuak.

Aurretik aipatutakoaren harira, ikasle bakoitzak bere erritmoa eta gorputz adierazpenerako gaitasuna izango du, horregatik, **ebaluazioa** ez da azken emaitza soilik izango. Ikasleek, saio bakoitzaren amaieran, amankomunean jarriko dute beraien ideiak eta iritziak saioari buruz (ahoz) eta tarte txiki bat izango dute autoebaluazio fitxa betetzeko. Horrez gain, irakasleak jarraipen orri bat izango du, modu kolektibo batean saioaren helburuak betetzen diren edo ez jakiteko. Honekin amaitzeko, ikasleek koebaluazio fitxa bat ere bete beharko dute, azken emaitza sortzeko (antzerkia) lan egin duten taldeetan. Guzti hau kontuan izanda, irakasleak ere ebaluaketan rol garrantzitsu bat izango du, ikasleen abiapuntua zein den ezagutzuz, prozesua ebaluatuz eta azken emaitza ebaluatuz.

Taldekatzeari dagokionez, jardueraren arabera, ikasleak bakarrik, binaka, hirunaka edo talde handiagoetan arituko dira. Bertan, ikasle bakoitzak dituen rolak eta gorputz adierazpenerako gaitasuna aztertuko du irakasleak. Ikasle batzuk, modu indibidualean agian erosoago sentituko dira eta lana hobeto egingo dute. Beste batzuk berriz, alderantziz. Ikasleen taldekatzearekin lotura duen puntu bat, autonomia izango da. Ikasleek talde lanean elkarbizitzen jakin beharko dute eta beraien erabakiak hartzen jakin beharko dute. Autonomia eta askatasuna izango dute jarduera jakin batzuetan eta horri aurre egiten jakin beharko dute arrakasta lortzeko. Momentu horietan, irakaslearen rola gidariarena izango da, behar duten unean laguntza eskaintzeko egongo dena.

Unitate didaktikoan erabiliko dugun **materiala eta espazioa** anitza izango da. Lehenik, materialari erreparatzen badiogu, ariketa bakoitzak bere materiala beharko du (emozioen pegatinak, musika, bideoa, egoerak adierazteko papertxoak, etab.). Bigarrenik, espazioa ere ezberdina izango da saioaren arabera, horregatik, ikasgela, jolastokia, frontoia, etab. erabiliko dira, betiere, segurtasun neurriak kontuan izanda.

Amaitzeko, irakasle zein ikasleen rolari dagokionez, irakasleak planteatutako jardueren ehuneko handi batek, ikasleen autonomia eta erabakitze askatasuna bultzatzen du, zeinetan gehienbat, taldeetan jardungo duten erabakiak hartuz, eztabaidatuz eta tankerako egoerak biziz.

4.10. JARDUERAK

| | |
|--|-----------------------------|
| LH- 4. MAILA | |
| 1. SAIOA: MUSIKAREKIN ADIERAZTEN | IRAUPENA: ORDU 1 |
| MATERIALAK -Ordenagailua eta proiektorea. -Ordenagailua musika jartzeko. -Zapiak begiak tapatzeko. | |
| HELBURUAK - Ikasleek gorputz adierazpenaz eta emozioetaz duten aurrezagutzak ezagutzea, konfiantzazko giroa sortzea eta lotsa galtzea. | |
| JARDUERAK <ol style="list-style-type: none">1. Lehenik eta behin, ikasleei gorputz adierazpenaz eta emozioetaz zer dakiten galdetuko diegu, beraien aurrezagutzak zeintzuk diren jakiteko eta ea gorputzaren bitartez zerbait inoiz adierazi duten. Gorputz adierazpenaren bideoa jarri. (10 MINUTU)2. “Just Dance”: YouTube eta ikasgelako proiektorearen bidez, “Just Dance” dantza jolasa. (15 MINUTU)3. BAT, BI, ETA HIRU: Dantzan dabilzan bitartean, zenbaki bat esango du irakasleak ikasleak zenbakiaren arabera, ekintza bat edo beste egingo dute ondoan duten kideekin (ondoan pertsona bera ez izaten saiatu behar dute) (10 MINUTU)<ol style="list-style-type: none">1) <i>Errieta egin mimikaz (barrerik egin gabe)</i>2) <i>Ligatu</i>3) <i>Zerbait ondo egin duzu, ZORIONDU!</i>4. 4-5eko taldeak egingo ditugu eta taldekideak elkarren jarraian ilara atean jarriko dira. Musikarekin lehenak mugimendu ezberdinak egingo ditu eta taldekideek lehenengo kideak egiten dituen mugimenduak errepikatu beharko dituzte. Irakasleak musika etendakoan, ilarako azkena lehenengo postura pasako da eta denek lan bera egin beharko dute ilaran lehenak izan arte. (10 MINUTU) | |
| Amaitzeko, hausnarketa egingo dugu: (10 MINUTU) <ul style="list-style-type: none">- Nola sentitu zarete? Lotsatuta sentitu zarete?- Parte hartu duzue?- Berdin sentitu zarete pertsona guztiekin?- Autoebaluazio fitxa bete. | |

| | |
|--|-----------------------------|
| LH- 4. MAILA | |
| 2. SAIOA: EMOZIOAK EZAGUTZEN | IRAUPENA: ORDU 1 |
| MATERIALAK | |
| <p>-Emozioak papertxoetan idatzita</p> <p>-Ordenagailua musika jartzeko.</p> <p>-Zapiak begiak tapatzeko.</p> | |
| HELBURUAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleen harremanak sustatzea, gorputz adierazpenarekin komunikatzea, emozioak identifikatzen eta ezagutzen hastea.. | |
| JARDUERAK | |
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleei aurreko saiotik zer gogoratzen duten galdetuko zaie, lotura egiteko. (5 MINUTU) 2. Ikasleei musika ezberdinak jarriko zaizkie, kanta bakoitzak zein emozio sentiarazi dien partekatuko dute 4-5 ikasleko taldetxoetan. (15 MINUTU) 3. Ikasle bakoitzari emozio bat egokituko zaio papertxo zati batean. Ikasle bakoitzak bere papertxo (emozioa zein den begiratu gabe) kopetan itsatsi beharko du. Ondorioz, ahoz hitz egin gabe, lehenik bere emozioa zein den jakin beharko du, besteekin harremanetan jarriz. Horren ondoren, bere emozio berdina duen pertsona aurkitu beharko du, betiere, ahozko komunikazioa erabili gabe. 5 minutu izango dute bikotea aurkitzeko. (15 MINUTU) 4. Taldeetan banatuta guztiok begiak tapatuko dituzte. Ikasle bat hasiko da, zirkuluaren erdian botila kokatu eta honi bira emango dio. Botila begira gelditzen den ikaslearengana joan eta afektu keinu bat egin beharko dio (muxu eman, besarkatu, ferekatu...). honetaz aparte bere gauza on bat eta hobetu beharreko bat esango dizkio belarrira. Ondoren, afektu keinua jaso duenak egin beharko du. Ordura arte jaso dutenek errepikatu gabe. (15 MINUTU) | |
| Amaitzeko, hausnarketa egingo dugu: (10 MINUTU) | |
| <ul style="list-style-type: none"> - Nola sentitu zarete? zein emozio sentitu duzue? - Saioa gustatu al zaizue? - Berdin sentitu zarete abesti guztiekin? eta pertsonekin? - Autoebaluazio fitxa bete. | |

| | |
|--|-----------------------------|
| LH- 4. MAILA | |
| 3. SAIOA: MUGITUZ DANTZATU | IRAUPENA: ORDU 1 |
| MATERIALAK -Mugikorra eta bozgorailua. -Pilotak erlaxazio ariketarako. | |
| HELBURUAK - Gorputz adierazpenean sakontzea, emozioak lantzea eta erlaxatzen ikastea. | |
| JARDUERAK <ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleei aurreko saioaz hitz egiteko eskatuko zaie, lotura egiteko eta beraien iritzia ezagutzeko. Horrez gain, saio honetan egingo duguna azalduko diegu. (5 MINUTU) 2. Ikasleak musikarekin ikasgela osotik sakabanatuko dira nahi duten mugimenduak egiten, banaka edo taldeka. Kantaren erritmoaren arabera eta pertsonaren emozioen arabera mugimendu ezberdinak ikusiko ditugu. (10 MINUTU) 3. 7-8ko ikasleko taldeetan, ikasleek hitzak irudikatu beharko dituzte beraien gorputzekin letrak osatuz. Horretarako, lurrean etzanda irduikatiko dituzte hitz horiek, betiere emozioak izango direnak. Adibidez: lotsa, alaia, poza...(15 MINUTU) 4. Saioaren amaieran, musika lasai batekin binaka jarriko dira. Ikasleek beraiek aukeratuko dute erosotasunez bikoteak. Bata lurrean etzango da lurrera begira, begiak itxita duela. Besteak, bere eskuekin edo pilota baten bitartez, bere gorputzeko atal ezberdinak ukituko ditu. Ondoren rolak aldatuko dira. Pilotaren erabilera, erosotasun arrazoiengandik sartuko dugu, batzuk agian ez direlako ausartzen eskuekin bestea ukitzera. (10 MINUTU) | |
| Amaitzeko, hausnarketa egingo dugu: (10 MINUTU) <ul style="list-style-type: none"> - Nola sentitu zarete antzerkian? zein emozio sentitu duzue? - Saioa gustatu al zaizue? - Berdin sentitu zarete taldeetan edo talde osoaren aurrean? - Autoebaluazio fitxa bete. | |

| | |
|--|-----------------------------|
| LH- 4. MAILA | |
| 4. SAIOA: ANTZEZTEN HASTEN | IRAUPENA: ORDU 1 |
| MATERIALAK -Emozio edo egoera papertxoak ikasleei banatzeko. -Abiapuntu izango diren egoeren papertxoak. | |
| HELBURUAK - Gorputz adierazpenarekin antzezten hastea, emozioak ezagutzea eta identifikatzea. | |
| JARDUERAK 1. Ikasleak 4-5 eko taldeetan banatuko dira. Talde bakoitzean, egoera edo emozio ezberdinak egokituko dira papertxo bidez, ondorioz, banaka beraien taldekideen aurrean, egoera hori antzeztu beharko dute eta besteek asmatu. (10 MINUTU) 2. Talde bakoitzari abiapuntu bat emango zaio, egoera bat izango dena. Hori kontuan izanda, nahi duten norabidea eta amaiera emango die istorioari. Bertan, emozio ezberdinak ageri beharko dira eta ikasle guztion parte hartzea (ahozko komunikaziorik gabe) sustatu beharko dute. (15 MINUTU) 3. Aurreko jardueran prestatu duten antzerkia aurrera eraman beharko dute gainontzeko taldeen aurrean. (15 MINUTU) | |
| Amaitzeko, hausnarketa egingo dugu: (10 MINUTU) - Nola sentitu zarete antzerkian? zein emozio sentitu duzue? - Saioa gustatu al zaizue? - Berdin sentitu zarete taldeetan edo talde osoaren aurrean? - Autoebaluazio fitxa bete. | |

| | |
|--|-----------------------------|
| LH- 4. MAILA | |
| 5. SAIOA: ANTZEZTEKO PREST? | IRAUPENA: ORDU 1 |
| MATERIALAK -Abiapuntu izango diren egoeren papertxoak. -Erlaxaziorako musika eta bozgorailua. | |
| HELBURUAK <ul style="list-style-type: none"> - Ahozko komunikaziorik gabe antzeztea, talde lana sustatzea eta errespetua besteen ekarpenekiko. | |
| JARDUERAK <ol style="list-style-type: none"> 1. Aurreko saioan egindakoa gogoratuko dugu eta saio honetan egingo duguna azalduko zaie. (10 MINUTU) 2. Ikasleei hurrengo saioan aurrera eraman beharko duten antzerkien egoera partekatuko zaie. Honekin batera, emozio ezberdinak egon behar direla azalduko zaie. Horren arabera, beraien artean zer egin dezaketean eta zer ez adostu beharko dute, antzerkia gorputz adierazpenaren bitartez egin ahal izateko. Antzerkiak minutu 1 eta 2 bitartekoak izan beharko dute. Taldeak 5-6 ikasleek osatuko dute.. (20 MINUTU) 3. 5-6 ikasleeko taldeetan banatuko ditugu. Horien artean lerro bat osatuko dute, lurrean eserita. Bata bestearen atzean jarriko dira, eskuekin besteen bizkarra eta burura heltzeko distantzia batean. Lerroan azkena dagoen pertsona horrek, bere aurrekoari bizkarra, besoak, burua, sorbalda, lepoa... ukituko dio. Beraz jasotzen duen berina bere aurrekoari egiten saiatuko da, horrela ilaran lehenengo dagoen ikaslara heldu arte. Ondoren rolak aldatuko dira. (10 MINUTU) | |
| Amaitzeko, hausnarketa egingo dugu: (10 MINUTU) <ul style="list-style-type: none"> - Nola sentitu zarete antzerkian? zein emozio sentitu duzue? - Saioa gustatu al zaizue? - Berdin sentitu zarete taldeetan edo talde osoaren aurrean? - Autoebaluazio fitxa bete. | |

| | |
|---|-----------------------------|
| LH- 4. MAILA | |
| 6. SAIOA: ANTZEZTERA! | IRAUPENA: ORDU 1 |
| MATERIALAK | |
| <p>-Abiapuntu izango diren egoeren papertxoak.</p> <p>-Ikasleek antzerkirako behar dutena.</p> <p>-Taldeko ebaluazio fitxa.</p> | |
| HELBURUAK | |
| <ul style="list-style-type: none"> - Unitatean ikasitakoa praktikan jartzea antzerkian. | |
| JARDUERAK | |
| <ol style="list-style-type: none"> 1. Aurreko saioa gogoratu eta lotura egin. Talde bakoitzak bere antzerkirako pentsatu zuena gogoratu. (10 MINUTU) 2. Talde bakoitzari denbora emango zaie beraien antzerkia prestatzeko. Soilik gorputz adierazpena erabili ahalko dela eta emozioak ager beharko direla gogoraraziko diegu. (25 MINUTU) 3. Aurreko eguneko eta saio honetako jardueran prestatuta duten antzerkia aurrera eramán beharko dute gainontzeko taldeen aurrean. Aipatzekoa da ere, ikasleak diren ikasleei, errubrika bat emango zaiela ebaluazio irizpide jakin batzuekin, beraiek ere taldeak ebaluatu ahal izateko. (15 MINUTU). | |
| Amaitzeko, hausnarketa egingo dugu: (10 MINUTU) | |
| <ul style="list-style-type: none"> - Nola sentitu zarete saio guztietan zehar? - Gustatu al zaizue? - Gomendatuko zenukete hurrengo urteko 4. mailako ikasleentzat? - Autoebaluazio fitxa bete. - Koebaluazio fitxa bete (norbere eta besteen antzezlanak ebaluatzeko) - Unitate didaktikoko ebaluazio fitxa bete. | |

4.11. EBALUAZIOA

Aurreko puntuetan aipatutakoaren harira, bi kompetentzia hauetan jarriko dut arreta unitate didaktikoa ebaluatzeko unean:

Taula 5. Zeharkako kompetentzia: Elkarbizitzarako kompetentzia

| ZEHARKAKO KONPETENTZIA: Elkarbizitzarako kompetentzia | |
|---|---|
| Osagaia | Norberaren eta besteren nahiak asebate daitezen uztartzea komunikazioan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea. |
| Adierazleak | + <i>Jakin</i> : Norberaren sentimenduak, emozioak eta nahiak modu asertiboan adierazten ditu. + <i>Egiten jakin</i> : Bere emozioak komunikatzeko gai da ekarpen ezberdinen bitartez. + <i>Izaten jakin</i> : Emozioak adierazteko eta komunikatzeko orduan errespetuz adierazten ditu eta besteen ekarpenak errespetuz entzuten ditu. |

Taula 6. Diziplinarteko kompetentzia: Konpetentzia motorra

| DIZIPLINARTEKO KONPETENTZIA: Konpetentzia motorra | |
|---|---|
| Osagaia | Gorputza naturaltasunez edo intentziaz erabiltzea komunikatzeko eta sormena, afektua eta ulermena adierazteko. |
| Adierazleak | + <i>Jakin</i> : Ahozko komunikazioa alde batera utziz, komunikatzeko gorputza erabiltzen du. + <i>Egiten jakin</i> : Bere emozioak komunikatzeko orduan, gorputz adierazpenaren bitartez egiten du. + <i>Izaten jakin</i> : Gorputz adierazpenean errespetuz aritzen da, bai irakasle bai gainontzeko ikasleekiko. |

Bi kompetentzia horiek ebaluatzeko, mota ezberdinetako ebaluazioak erabiliko ditut:

Lehenik eta behin, aipatu beharra dago ikasleek norbere burua ebaluatzeko saio bakoitzaren amaieran beteko duen **autoebaluazio fitxa** (ikusitako eranskinak 1). Honen bitartez, ikasle bakoitzak bere burua modu kritiko, baina eraikitzaile, batean ebaluatzeko aukera izango du.

Bigarrenik, aldeztu aurretik aipatu dudana bezala, Unitate didaktiko honen helburu nagusia, abiapuntu bat izanik, 2 edo 3 minutuko iraupena duen istorio bat sortu eta antzeztu beharko dute talde txikietan (ahozko komunikaziorik gabe). Horren ondoren, berdinen arteko ebaluazio bat (taldeka) egin beharko dute ikasleek, gainontzeko taldeei errubrika baten

bitartez ebaluatuz (ikusi eranskinak 2). Horrez gain, talde bakoitzak bere antzezlanaren ere ebaluatu beharko du koebaluazio fitxa betez (ikusi eranskinak 3).

Amaitzeko, irakasleari dagokionez, **jarraipen orri** bat erabili dut (ikusi eranskinak 4) heteroebaluazioa egiteko, non, ikasle bakoitzak lorpen jakin batzuk bete dituen ala ez adieraziko den zenbakien bidez. Zenbakiak, 1 (Ez), 2 (Gutxitan), 3 (Batzuetan), 4 (Gehienetan) eta 5 (Beti) adieraziko dute eta horren arabera izango da nire ebaluazioa ikasle bakoitzarekiko.


5. EMAITZAK

Behin ebaluazio guztiak eginda eta aztertuta emaitzak ateratzeko unea iritsi da. Hurrengo ataletan, ebaluazio mota bakoitzean lortu diren emaitzak eskainiko ditut. Aipatutako ebaluazioek, helburu jakin batzuk dituzte eta horietatik abiatuz, emaitzen banaketa honako hau izango da: *Autebaluazioen emaitzak, koebaluazioen emaitzak, berdinen arteko ebaluazioen emaitzak eta heteroebaluazioaren emaitzak.*

5.1 AUTOEBALUAZIOEN EMAITZAK

Autoebaluazioan (ikusi eranskinak 1) ikasleek saio bakoitzaren amaieran bere fitxa bete behar zuten. Bertan 4 galdera daude eta guztiei erantzun behar izan die. Hona hemen ikasleen erantzunen emaitzak:

-Zein emozio sentitu dituzu? Galdera honen bitartez, ikasleei fitxan eskainitako emozioak ea identifikatzen dituzten, ezagutzen dituzten eta sentitu dituzten jakitea zen helburua. Honako hauek sentitu zituztela adierazi zuten ikasleek saioetan zehar:




4. Grafikoa . Ikasleek sentitutako emozioen adierazpena

Grafikoan ikusten den bezala, ikasleen gehiengo haundi batek, *poza* eta *lotsa* sentitu zuten saioetan zehar. Hori nabaria izan zen eta egiten genituen egoera motor gehienetan antzematen ziren emozio horiek. Gainontzeko guztien artean, *asperdura* azpimarratzea gustatuko litzaidake. Ikasle jakin batzuk (gelako lehiakorrenak eta kirol tradizionalak gustoko dutenak) Gorputz Hezkuntza jolas eta kirol lehiakorrek harremantzen dute eta Gorputz Adierazpena bezalako gaiak lantzean, aspertu egiten dira eta gainera saioak oztopatzeko joera izan dute gehienetan (“Hau kaka bat da”, “Nik ez dut egingo”, “Dantza egiteko apuntatzeko eskolaz kanpoko dantzetan” eta horrelako esaldiak esaten zituzten Horrez gain taldeko ekintzetan ez zuten talde lana errazten, ezta parte hartze aktiborik izaten ere). Hortaz aparte, nik aukeran borobiltzeko emandako emozioetatik aparte, lerro huts bat zuten, beste emozioen bat idazteko eta ikasle bakar batek idatzi du “dibertigarria”. Beraz, galdera honek, emozio ezberdinak identifikatzen dituztela, ezagutzen dituztela eta sentitu dituztela dakitela ohartzeko balio izan dit saio bakoitzaren amaieran.

-Gorputz adierazpena erabili duzu? Ikasleei galdera hau bideratu nien, gehienbat lehen saioaren amaieran erantzuteko, baina, gainontzeko saioetan ere erantzun egin zuten. Honen helburu nagusia, lehen saioaren ondoren ea gorputz adierazpena erabili zuten jakitea zen, dantza, mimika, etab. Espero nuen bezala, ikasle guztiek baietz idatzi zuten, baina, 2. saioan ikasle batek gorputz adierazpena ez zuela erabili adierazi zuen autoebaluazio fitxan. Aipatutako emaitzak grafiko zirkular honetan adierazita, gorputz adierazpena erabili duten edo ez adierazteko:

GORPUTZ ADIERAZPENA ERABILI DUZU?



5. Grafikoa. Gorputz adierazpenaren erabilpena

-Zerbait berria ikasi duzu? Galdera honi erantzuna BAI (%74,41) edo EZ (%25,59) izan da.



6. Grafikoa. Ikaskizun berriaren grafikoa

Baina honekin lotura duen laugarren galdera bat zegoen. Erantzuna BAI izanez gero, ikasi duzun berri hori zer izan da? Galdera honen erantzunak aztertu aurretik, azpimarratzea gustatuko litzaidake ikasle batzuen jarrera. Lehenengo saioan ezer berria ikasi ez zutela adierazi ondoren, bigarren saio amaieran ahozko hausnarketan ikasle horiei ea zerbait berria ikasi zuten galdetu nien eta baietz erantzun zidaten. Ikasle berdin horiek, autoebaluazio fitxa betetzean, ezer berria ikasi ez zutela idatzi zuten berriro. Hori esanda, hona hemen ikasleen erantzun guztiak multzokatuta eta taula honetan sailkatuta, non, kolore urdinez galderen multzoak dauden eta arrosa kolorearekin ikasleen zein ehunekok erantzun dituen adierazten den.

Taula 7. *Ikasleek ikasitakoaren sailkapena*

| IKASLEEK ZERBAIT BERRIA IKASI DUTEN GALDERARI EMANDAKO ERANTZUNAK | |
|--|--------|
| -Hitzik gabeko komunikazioa zailagoa dela dioten erantzunen multzoa. | %8,57 |
| -Gorputzarekin/ keinuekin komunikatu daitezkeela dioten erantzunen multzoa. | %14,28 |
| -Gorputz forma/ keinu gehiago ikasi dutela dioten erantzunen multzoa. | %28,57 |
| -Masajeak emateko modu berriak ikasi dutela dioten erantzunen multzoa. | %28,57 |
| -Jolas/ joko berriak ikasi dutela dioten erantzunen multzoa. | %8,57 |
| -Jardueretan errespetatu egin behar dela dioten erantzunen multzoa. | %2,85 |
| -Mimikaren bitartez gustora sentitu direla eta gauza politak edin daitezkeela dioten erantzunen multzoa. | %5,71 |
| -”Jus Dance” Youtuben dagoela. | %2,85 |

Autoebaluazioko erantzun guztiak jasota eta multzokatu ostean, ikusten den bezala, “emozioa” hitza ez dute aipatu eta gorputz adierazpenean zentratu dira ikasleak. Horrez

gain, hasierako saioetan eta amaierako saioetan emandako erantzunetan progresioa ere ikusi da. Hasieran, *jolasetan ezin daiteke bultzatu, Just dance youtuben dagoela, jolas berriak ikasi ditut*, etab. erantzuten zuten. Honekin ez dut esan nahi erantzun horiek gaizki daudenik, baizik eta saioak aurrera joan ahala, gaia gehiago menperatzen zutela eta lantzen genuen horretan zehazten zutela beraien erantzunak. Horren adibide dira: *Gorputz adierazpenaren zati berri batzuk, gorputzarekin adierazi daitekeela ,oso ezberdina da gorputzarekin edo ahoz komunikatzea*, beste zenbaiten artean.

5.2 KOEBALUAZIOEN EMAITZAK

Aldez aurretik esan bezala, unitate didaktikoaren azken emaitza 2-3 minutuko antzerkia izan zen. Koebaluazio errubrika honekin lotu dut, hau da, antzerkia egin ondoren, ikasleek beraien koebaluazioa bete behar izan dute. 4 talde izanik, bakoitzak bere errubrika bete du eta emaitzak berdinak izan dira guztietan:

KOEBALUAZIO FITXA

Taula 8. *Koebaluazio errubrika*
Antzezlarien izenak:

| "X" bidez markatu. | BAI | EZ |
|--------------------------------------|------|------|
| Gorputz adierazpena erabili dugu. | %100 | |
| Hitzak erabili ditugu. | | %100 |
| Emozioak antzeman dira. | %100 | |
| Iraupena egokia izan da (2-3 minutu) | %100 | |

-OHARRAK:

Errubrikaren emaitzak ikusita, talde guztiek modu berdinean bete dute beraien taula. Ikasle talde guztiek erantzun "egokia" bilatu zuten. Egia esan, beraien koebaluazioa eta nik behatutakoa alderatuz, bat doaz. Talde bat izan ezik, gainontzeko guztiek antzerki txukuna egin zuten.

5.3. BERDINEN ARTEKO EBALUAZIOEN EMAITZAK

Talde bakoitzak bere burua ebaluatzeaz gain, gainontzekoen iritzia eta ebaluazioa zein izan den jakitea oso baliabide ona izan daiteke ikasleentzat. Berdinen arteko ebaluazioaren bitartez, irakaslea 2. mailan gelditzen da eta ikasleak dira benetako

protagonistak. Horren ondorioz, koebaluzioaren oso antzekoa den ebaluzio errubrikak (ikus eranskinak 2) bete behar izan zituzten. Hona hemen jasotako emaitzak:

Taula 9. *Berdinen arteko ebaluzio errubrikak*

| "A" TALDEARI EGINDAKO EBALUAZIOA | BAI | ERDIZKA | EZ |
|-----------------------------------|------|---------|------|
| Gorputz adierazpena erabili dute. | %100 | | |
| Hitzak erabili dituzte. | | | %100 |
| Emozioak antzeman dira. | %100 | | |
| Iraupena egokia izan da. | %100 | | |

OHARRAK: *Oso dibertigarria izan da*

| "B" TALDEARI EGINDAKO EBALUAZIOA | BAI | ERDIZKA | EZ |
|-----------------------------------|--------|---------|------|
| Gorputz adierazpena erabili dute. | %100 | | |
| Hitzak erabili dituzte. | | | %100 |
| Emozioak antzeman dira. | %66.66 | %33.34 | |
| Iraupena egokia izan da. | %100 | | |

OHARRAK: *Oso polita izan da.*

| "C" TALDEARI EGINDAKO EBALUAZIOA | BAI | ERDIZKA | EZ |
|-----------------------------------|--------|---------|------|
| Gorputz adierazpena erabili dute. | %100 | | |
| Hitzak erabili dituzte. | | | %100 |
| Emozioak antzeman dira. | %66.66 | %33.34 | |
| Iraupena egokia izan da. | %100 | | |

OHARRAK:

| "D" TALDEARI EGINDAKO EBALUAZIOA | BAI | ERDIZKA | EZ |
|-----------------------------------|--------|---------|--------|
| Gorputz adierazpena erabili dute. | %66.66 | | %33.34 |
| Hitzak erabili dituzte. | | | %100 |
| Emozioak antzeman dira. | %66.66 | %33.34 | |
| Iraupena egokia izan da. | %100 | | |

OHARRAK:

Bertan, datu interesgarriak eskuratu ahal izan ditut eta koebaluazioarekin alderatuz gero, zenbait kasutan emaitzak ez datoz bat, hau da, norberak bere burua ebaluatzean edo beste talde batek ebaluatu diotenean, ez dira emaitza berdinak atera. Emaitzei erreparatuz gero, talde gehienetan hartutako erabakiak bat datoz gainontzeko taldekoenekin.

Tauletan kusi daiteke 4 taldeak ebaluatuak izan direla beste 3 taldeengandik. "A", "B" eta "C" taldeen emaitzak, nahiko antzekoak izan dira zehaztutako ebaluazio irizpideak kontuan hartuta. Baina, "D" taldearen kasua ezberdina izan da.

Emozioei dagokionez, unitate didaktikoaren azken saioan azaltzen den bezala, ikasle talde bakoitzari abiapuntu bat eskaini zitzaion. Horrez gain, interpretatu beharko zenbait emozio ere adierazi nizkien eta hori ez zen lan erraza, ez antzezlarientzat, ezta ebaluatzaileentzat ere. Ebaluazio errubrikak aztertuz gero, "emozioak antzeman dira" atalean daude desadostasun gehien orokorrean ("A" taldean izan ezik, ebaluazio guztiek berdina adierazten dutela).

5.4 HETEROEBALUAZIOAREN EMAITZAK

Ikasleek beraien burua eta gainontzeko ikasleak ebaluatzeaz gain, unitate didaktikoa laburtzen duen errubrika bat ere erabili dut ebaluaziorako. Bertan ebaluazio irizpide jakin batzuk daude ezarrita eta nire behaketa eta zenbait oharren bitartez, hori bete dut. Bertan begi bistakoa izango da ikasle bakoitzari ezarritako nota, 1-etik (Ez/inoiz), 5-era (Bai/beti). Taulan ikusten den bezala, ikasleen ehuneko handi batek gorputz adierazpena eta emozioei dagokien helburuak bete dituzte, batzuk beste batzuk baino hobeto. Hala ere, badago taldearen zati txiki bat, errubrikaren notak aztertuz gero, gorputz adierazpena eta emozioak ez dituztela behar bezala landu edo barneratu. Ehunekoei dagokionez, ikasgelaren zati handia %77,28 izan da eta zati txikia berriz %22,72-koa. Gainontzeko atalak jarrera, talde lana eta tankerako irizpideak dira, oso garrantzitsuak baina kasu honetan bigarren maila batean geldituko direnak nire analisisian (horregatik taulan ebaluatuta daude, baina kolorerik gabe). Beraz, emaitzak ikusita, esan dezaket 5 ikasleek kenduta, gainontzeko guztiek unitate didaktikoaren helburuak bete dituztela.

Taula 10. Heteroebaluazio errubrika

1-(EZ/INOIZ) 2-(GUTXITAN) 3-(BATZUETAN) 4-(GEHIENETAN) 5-(BAI/BETI)

| LH 4 EBALUAZIO ORRIA | Jardueretan bere emozioak adierazten ditu. | Emozioak ezagutzen eta identifikatzen ditu. | Gainontzekoek adierazten dutena ulertzen du. | Dantza eta antzerkietan erritmoa eramatzen du. | Gorputz adierazpena erabiltzen du. | Taldekieekiko errespetuz aritzen da. | Talde lanean pertsona oro berdintasunez tratatzen du. | Talde lanean aritzen da. | Gatazkak komunikazio bidez konpontzen ditu |
|-------------------------|--|--|--|--|---------------------------------------|---|---|-----------------------------|---|
| 1.X | 5 | 5 | 4 | 5 | 5 | 4 | 4 | 5 | 5 |
| 2.X | 2 | 2 | 1 | 1 | 3 | 2 | 1 | 1 | 1 |
| 3.X | 3 | 2 | 2 | 3 | 5 | 2 | 1 | 1 | 1 |
| 4.X | 5 | 5 | 4 | 5 | 5 | 3 | 5 | 4 | 4 |
| 5.X | 1 | 2 | 2 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| 6.X | 4 | 5 | 4 | 3 | 5 | 3 | 4 | 5 | 5 |
| 7.X | 5 | 4 | 4 | 5 | 5 | 4 | 4 | 3 | 4 |
| 8.X | 4 | 5 | 4 | 4 | 5 | 4 | 3 | 5 | 5 |
| 9.X | 2 | 2 | 1 | 1 | 2 | 3 | 2 | 3 | 3 |
| 10.X | 5 | 5 | 4 | 5 | 5 | 3 | 4 | 5 | 4 |
| 11.X | 4 | 5 | 4 | 4 | 5 | 3 | 4 | 5 | 5 |
| 12.X | 1 | 1 | 2 | 1 | 2 | 5 | 5 | 1 | 5 |
| 13.X | 5 | 4 | 4 | 4 | 5 | 4 | 4 | 5 | 5 |
| 14.X | 4 | 5 | 3 | 3 | 4 | 5 | 4 | 4 | 4 |
| 15.X | 4 | 4 | 4 | 3 | 5 | 3 | 3 | 3 | 4 |
| 16.X | 5 | 4 | 4 | 4 | 5 | 4 | 4 | 4 | 5 |
| 17.X | 5 | 5 | 4 | 5 | 4 | 5 | 5 | 4 | 5 |
| 18.X | 4 | 4 | 3 | 4 | 4 | 5 | 3 | 5 | 4 |
| 19.X | 4 | 3 | 5 | 3 | 4 | 4 | 4 | 5 | 4 |
| 20.X | 5 | 3 | 2 | 3 | 2 | 5 | 3 | 3 | 5 |
| 21.X | 5 | 5 | 4 | 5 | 4 | 3 | 5 | 5 | 5 |
| 22.X | 3 | 5 | 3 | 4 | 5 | 5 | 5 | 4 | 5 |

6. ONDORIOAK

Hasteko, autoebaluazioko emaitzen ondorioetatik, gorputz adierazpenaren erabilera azpimarratzea gustatuko litzaidake. Ikasle guztiek erabili zuten saio guztietan gorputz adierazpena, oso gutxi ez bada ere. Hala ere, ikasle batek, 2. saioko autoebaluazio fitxa betetzean, gorputz adierazpena ez zuela erabili idatzi zuen eta horren zergatia galdetzea erabaki nuen. Bere erantzuna oso garbia izan zen, “pentsatu gabe bete nuen fitxa, aldagelara joateko gogoia bait nuen”. Horren ondorioz, gainontzeko ikasleek ere zein garrantzia eman dieten autoebaluazio fitxari jakitea gustatuko litzaidake, nahiz eta beraiek garrantzia eman eta zintotasunez bete dutela esan, errealitatea kontrakoa izan daiteke. Horrez gain, ikasleei zerbait berria ikasi duten galdetzean, emozioen inguruko ekarpenik ez dute egin beraien erantzunetan, soilik gorputz adierazpena aipatu dute. Horren arrazoi nagusia, emozioak eta gorputz adierazpena aldi berean landu ditugulako izan daiteke. Horrek, gorputz adierazpenak pisu edo talka gehiago izateak eragin ahal izan du ikasleengan, beraien buruan emozioak bigarren maila batean utziz.

Emaitzen ondorioekin jarraitzeko, ikasleek egin zuten antzerkiaren inguruko berdinen arteko ebaluazioan lortutako emaitzak aztertzea gustatuko litzaidake. Ikasle bakoitza

ezberdina denez, taldeak ere oso ezberdinak izan ziren. Horregatik, antzerkietan ikusitako emaitzek ere ezberdintasunak zituzten, baina, betetako errubrikak modu bisual eta kuantitatibo batean adierazten ditu emaitzak. Aldez aurretik emaitzen ataleko berdinen arteko ebaluazio taulak behatuz gero, ikusi daiteke talde gehienek identifikatu dituztela gainontzeko taldeek adierazi nahi izan zituzten emozioak. Jarduera hori, unitate didaktikoaren azken produktua zen eta oso emaitza positiboak ikusi ahal izan ziren ikasleengan, emozioen inguruan egindako lanketa eta gorputz adierazpenean egindako lanketa oso ongi islatu zutelako antzerkietan. Izan ere, aldez aurretik esan bezala, "D" taldea izan da azken emaitza pobregoa egin duen taldea (aurreko puntuetan aipatu dudan arrazoen ondorioz). Lehen aipatutakoaren harira, gainontzeko ikasleen funtzionamendua eta azken emaitza aberatsagoa izan dela ez dut nik soilik esaten, beraiek ere ideia hori daukate, edo hala adierazi dute beraien ebaluazio errubriketan. Hala ere, Diaz (1997) adituak esan bezala, ez zaio azken emaitzari soilik garrantzia eman behar, prozesu osoa ere oso garrantzitsua delako. Gainera, talde horretan eman nuen denbora gehien, behar gehiago zutelako eta bertan ikusitako jarrerak arazoa konpontzeko asmoz goraiatzekoak dira eta hori ere ebaluazioaren atal nagusi bat da.

Ikasleek betetako errubrika guztietan lortutako emaitzak, oso esanguratsuak dira niretzat, baina, are gehiago ikasleentzat. Saioa amaitu baino lehen, emaitzen inguruan hitz egiten eta eztabaidatzen aritu ginen eta oso ekarpen interesgarriak eskuratu genituen elkarrengatik. Beraien datuak aztertuz gero, elkarren artean nahiko ados daudela adierazten dute.

Amaitzeko, ebaluazioetan eskuratutako informazio guztia borobiltzeko, nik egindako jarraipen orria erreparatzea ezinbestekoa da, ikasleen ebaluazioa bezain garrantzitsua delako. Bertan, koloreka adierazi dudana bezala, ikasle kopuru nahiko txikia dela esango nuke emozioen lanketari dagokien ebaluazio irizpidetan kalifikazio "eskasa" eskuratu dutenek. Egia esan, ikasle horien jarrerak asko baldintzatu du ikasketa prozesua 6 saioetan zehar eta horrek eragina izan du taldeko dinamikan. Hala ere, nire aldetik, balorazioa positiboa dela esan dezaket, beteko ez zenaren kopurua handiagoa izatearen beldur nintzelako eta azkenean ez da horrela izan. Esan bezala, balorazio hau unitate didaktikoaren amaieran egin dut, non, ikasleen progresioa behatzeko eta aztertzeko denbora izan dudana eta progresio hori ikaslearen arabera positiboa, neutroa edo negatiboa izan da.

Hona hemen ebaluazioaren emaitzen ondorioak: Autoebaluazioako emaitzen azterketari dagokienez, horiek erreparatuz gero, ondorio ugari atera daitezke bertatik. Alde batetik, ikasleen ebaluazioak behatuz eta bertan arreta jarri ondoren, esan daiteke, emozio

ezberdinak ezagutu dituztela. Horiek adierazteko, ikasle batzuk beste batzuk baino erraztasun handiagoak izan dute, normala den bezala. Hala ere, emozioak identifikatzeko orduan ez da egon laguntza txiki batekin (nirea edo ikaskideena) aurrera egin ez duen ikaslerik. Horrek jarduerak modu egoki batean aurrera eramane dituztela adierazten du orokorrean eta hori oso positiboa da. Horrez gain, aipatzekoa iruditzen zait, behaketaren bitartez eskuratu ahal izan dudane beste gai bat, lotsa dena. Gorputz adierazpenaren bitartez, lotsa izan zen lehenengo saioan ikasleek ia gehien sentitu eta identifikatu zuten emozioa. Hori horrela izanda, unitate didaktikoa aurrera joan ahala, lotsa desagertzen joan da eta horrek jarduerak kalitate handiagokoak izatea eragin du.

Beste alde batetik, esan bezala, unitate didaktiko honen xede nagusia, ikasleek, gorputz adierazpenaren bitartez, emozioak adierazten ikastea eta besteen emozioak identifikatzea eta nahiak ulertzea da. Hasiera batean zalantzak nituen, ea helburua beteko zen ala ez. Emozioen lanketa ez da ohikoena eta kasu honetan, ikasleek ere ez zuten honen lanketarik egin, modu ezplizituan behintzat. Ondorioz, erronka bezala hartu nuen.

Saio bakoitzean ezarritako helburuak, modu positibo batean betetzen joan direla esan dezaket, hala nola, emozioak ezagutu, horiek interpretatu, besteen interpretazioak ulertu, antzerkiak egin, etab. Horretarako, ikasle bakoitzak bere estrategiak erabili ditu, momentuko eskakizunari aurre egiteko eta jarduerak modu batean edo bestean aurrera eramateko. Egia esan, jarduera askok askatasuna eta ikasleen autonomia bultzatzen zuten eta hori ekintzen emaitzetan ikusten zen, non, abiapuntu berdina izanda talde guztiek, emaitza oso ezberdinak behatu ahal izan genituen. Beraz, esan dezaket unitate didaktikoaren balorazio orokorra oso ona izan dela. Beste beldurretako bat, denboralizazioa izan zen eta horrekin lotuta ni irakasle bezala izango nuen askatasuna. Izan ere, aldeztatik adostu nituen 6 saioak aurrera eramane ahal izan nituen eta ni izan nintzen saio horien buru.

Horrez gain, saio bakoitzeko balorazioa egiterako orduan, konturatu naiz, ikasleek emozioen lanketan hutsune handi bat dutela. Honen lanketa beti modu inplizituan egin da, eta are gehiago, gorputz hezkuntzan. Beraien hitzak laburbilduz, honako hau izan zen beraien gogoeta saio anitzen ondoren: "Gorputz hezkuntzan ez gaude horrelako jarduerak egitera ohituta, gehienetan saltoka, korrika, jolasetan, etab. ibiltzen gara". Gogoeta honek, asko esaten du irakasten den gorputz hezkuntzaren inguruan. Emozioak bezala, gorputz adierazpenak ere hutsunea izan dezake oraindik, nahiz eta curriculumean bere tokia izan. Emozioen lanketari dagokionez, ikasle gehienek, arazorik gabe planteatzen nituen jarduerak aurrera eramateko gai izan dira eta horrek unitate didaktikoaren norabidea egokia izatea ahalbidetu du.

Egindako lan honen indarguneak eta ahuleziak aipatzerako orduan, esan beharra daukat, nire aburuz indargune nagusia erabilitako metodologia izan dela. Lehenik, emozioen lanketa gorputz hezkuntzako unitate didaktiko baten bitartez egitea, ikasgaia honen bidez hain garrantzitsua den alor bat landu daitekeela agerian gelditu delako eta hori oso aberasgarria izan daitekeelako. Bigarrenik, ikasleekin emozioak lantzeak irakasle eta ikasleen arteko harremana erabat estutzen du, ikasle bakoitzak askatasuna duelako bere emozioak eta sentimenduak plazaratzeko gainontzekoen aurrean eta hori zoragarria da. Azkenik, planteatutako jarduera eta egoera motorrek, taldeko helburua zuten gehienetan, beraz, Duran et al., (2015) eta Lavega et al. (2013) adituek esan bezala, ikasleengan emozio positiboak modu errazago batean sorrarazteko aukera eman die (emaitzetan antzeman daitekeen bezala). Ahuleziei dagokienez, Bisquerraren (s.d.) ideiarekin bat eginez emozioen lanketa eraginkorragoa izan dadin, saio gehiago behar direla iruditu zait, baina ez soilik unitate didaktiko batean, baizik eta gainontzeko ikasgaietan ere. Emozioen lanketa sakonagoa izateko, progresio bat behar da eta hori ez da soilik gorputz hezkuntzako unitate didaktiko baten bidez eskuratzen. Aldagai emozionalak, lanketa bat behar du, bere osotasunean bermatzeko eta horren ardura eskolako beste zenbait ikasgaien arduera ere bai da. Horrez gain, lan honen kasuan, ikasleen feedback-a jaso ostean, gorputz adierazpenak emozioen lanketa baino pisu handiagoa hartu duela uste dut.

Aurreko paragrafoan aipatutakoa ikusita, lan honek indarguneak izateaz gain, ahuleziak ere baditu, horregatik, horiek kontuan hartzea ezinbestekoa da etorkizun batean berriro ere unitate didaktiko hau aurrera eramateko. Horrez gain, etorkizuneko proposamen bezala, unitate didaktiko hau martxan jartzeko asmoa duen pertsona orori, ikasle taldearen ezaugarriak eta emozioekin aldeztu aurretik izan duen kontaktua (aurrezagutzak) identifikatzea beharrezkoa ikusten dut, horrela, aurrera eraman beharreko jarduerak moldatzeko aukera egongo da lortu nahi diren helburuetara iristeko.

Laburbilduz, honako ondorio nagusi hauetara iritsi naiz unitate didaktikoa aurrera eraman ondoren: Alde batetik, emozioen lanketa ezplizitua egitera ohituta egon ez diren arren, eroso sentitu dira jardueretan eta asko eskertu dute momentuan sentitzen dutena partekatzeke tartea izateagatik (nahiz eta batzuetan lotsa sentitu). Bestalde, ikasleentzat esanguratsuak izan diren abestiak erabiltzea dantza egiteko eta beraiek proposatutako jardueraren bat egiteak ere asko indartu du beraien motibazioa eta horrek helburuetara modu egokiago batean heltzea eragin du. Amaitzeko, gorputz adierazpena eta emozioak aldi berean lantzeak ondorio positiboak izan dituela esatea gustatuko litzaidake. Izan ere, emozioak gaur egungo hezkuntzan duten hutsunea betetzeko beste diziplinak ere erabili

daitzekeela azpimarratuko nuke, hau da, emozioak hezkuntzako beste alor guztiekin ere lotzen dira.

7. ERREFERENTZIAK

- Abarca, M. y Sala, J. (2002). Las competencias emocionales de los futuros profesores/as. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 5 (3), pp. 1-4.
- Aluja, A., del Barrio, V., & García, L. F. (2007). Personalidad, valores sociales y satisfacción de pareja como factores predictores de los estilos de crianza parentales. *International Journal of Clinical and Health Psychology*, 7, pp. 725-737.
- Alzina, R. B. (2003). Educación emocional y competencias básicas para la vida. *Revista de investigación educativa*, 21(1), 7-43.
- Bach, E. y Darder, P. (2002). *Sedúcete para seducir. Vivir y educar las emociones*. Barcelona: Paidós Ibérica.
- Bar-On, R., y Parker, J. D. A. (2000). *The Handbook of Emotional Intelligence. Theory, Development, Assessment, and Application at Home, School, and in the Workplace*. San Francisco, Ca: JosseyBass.
- Bisquerra, R. (2000). *Educación emocional y bienestar*. Barcelona: Praxis.
- Bisquerra, R. eta Escoda, N. (2007). Las competencias emocionales. *Educación XXI*, 10, 62-82.
- Bisquerra, R. (2009). *Psicopedagogía de las emociones*. Madrid: Síntesis.
- Bisquerra, R. (s.d.). Rafael Bisquerra.
- Bisquerra, R. (2011). Educación emocional. *Propuestas para educadores y familias*. Bilbao: Desclée de Brower.
- Brown, J.R & Dunn, J. (1996). Continuities in emotion understanding from three to six years. *Child development*, 67, pp. 789-802.
- Campos, A. L. (2010). Neuroeducación: uniendo las neurociencias y la educación en la búsqueda del desarrollo humano. *La educación. Revista digital*, 143, 1-14.
- Camras, L. A. (1994). Two aspects of emotional development: expressions and elicitation. In P. Eckman y R.J Davidson (Eds), *The nature of emotion*. Oxford: Oxford University Press
- Darling, N. & Steinberg, L. (1993). Parenting styles as a context: An integrative model. *Psychological Bulletin*, 113, pp. 487-496.
- Dennis, T. (2006). Emotional Self - Regulation in Preschoolers: The Interplay of Child Approach Reactivity, Parenting, and Control Capacities. *Developmental Psychology*, 42(1), pp. 84-97.
- Díaz, J. B. (1997). La evaluación del centro educativo.
- Eisenberg, N., Valiente, C., Morris, A. S., Fabes, R. A., Cumberland, A., Reiser, M., et al.

- (2003). Longitudinal relations among parental emotional expressivity, children's regulation, and quality of Socioemotional functioning. *Developmental Psychology*, 39(1), pp. 3-19.
- Engeser, Stefa; Rheinberg, Falko. Flow, performance and moderators of challenge-skill balance. *Motivation and Emotion*, Boston, n. 32, p. 158-172, 2008
- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila. (2016). *Oinarrizko Hezkuntza Curriculum. 236/2015ko Dekretuaren II.Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea*.
- Fontaine, I. (2000). Experiencia emocional, factor determinante en el desarrollo cerebral del niño/a pequeño/a. *Estudios pedagógicos*, 26, 119-126. Revista electrónica.
- Goleman, D. (1995). *La inteligencia emocional*. Barcelona: Kairós.
- Harris, P. L. (1989). *Children and emotion: the development of psychological understanding*. Oxford, England: Basil Blackwell.
- Izard, C. E. (1994). Innate and universal facial expressions: Evidence from developmental and cross-cultural research. *Psychological Bulletin*, 115, pp. 288-299.
- Ladino, P. K., González-Correa, C.H., González-Correa, C.A. & Caicedo, J.C. (2016). Ejercicio físico e inteligencia emocional en un grupo de estudiantes universitarias. *Revista Iberoamericana de Psicología del ejercicio y el deporte*, 11(1), 31.36.
- Lagardera, Francisco; Lavega, Pere. *Introducción a la praxiología motriz*. Barcelona: Paidotribo, 2003.
- López, G. C. H., & Vesga, M. C. G. (2009). Interacción familiar y desarrollo emocional en niños y niñas. *Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, niñez y juventud*, 7(2), 785-802.
- Mayer, J. D. y Salovey, P. (1997) What is emotional intelligence? En P. Salovey y D. Sluyter (Eds). *Emotional Development and Emotional Intelligence: Implications for Educators* (pp. 3-31). New York: Basic Books.
- Mccaughtry, Nate .The emotional dimensions of a teacher's pedagogical content knowledge: Influences on content, curriculum, and pedagogy. *Journal of Teaching in Physical Education*, Champaign, v. 23, n. 1, p.30-47, 2004.
- Miralles Pascual, R., Filella Guiu, G., & Lavega i Burgués, P. (2017). Educación física emocional a través del juego en educación primaria: ayudando a los maestros a tomar decisiones. *Retos: Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, 2017, num. 31, p. 88-93.
- Mora, F. (2017). *Neuroeducación*. Alianza Editorial
- Palomera, R. et al. (2008). La inteligencia emocional como una competencia básica en la formación inicial de los docentes: algunas evidencias. *Electronic Journal of*

Research in Educational Psychology, 15 (6), pp. 437-454.

- Parlebas, Pierre. *Juegos, Deporte y Sociedad: Léxico de Praxiología Motriz*. Barcelona: Paidotribo, 2001.
- Pastor, V. M. L., Brunicardi, D. P., Arribas, J. C. M., & Aguado, R. M. (2016). Los retos de la Educación Física en el Siglo XXI. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, deporte y recreación*, (29), 182-187.
- Romero, R. (1999). La expresión y comunicación corporal desde el ámbito de la educación física: elementos, características y enfoque globalizador de la misma. En Linares, D., Zurita, F., & Iniesta, J. A. (Eds.), *Expresión y comunicación corporal en Educación Física*. Granada: Asociación para el desarrollo de la Comunidad Educativa en España y Grupo Editorial Universitario
- Saarni, C. (1988). Emotional Competence: How emotions and relationships become integrate. En R.A. Thompson , *Nebraska symposium on motivation* (vol. 36, pp.115-182). Lincoln: University of Nebraska Press. Reproducido en P. Salovey y D. J. Sluyter, (1997), *Emotional development and emotional intelligence*. Nueva York: Basic Books.
- Sánchez, I. G., Ordás, R. P., & Lluch, Á. C. (2013). Expresión corporal. Una práctica de intervención que permite encontrar un lenguaje propio mediante el estudio y la profundización del empleo del cuerpo. *Retos. Nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (23), 19-22.
- Schulze, R., y Richard, D. R. (Eds.). (2005). *Emotional Intelligence. An International Handbook*. Gotingen (Alemania): Hogrefe & Huber Publishers.
- Sroufe, A. (2000). *Desarrollo emocional: la organización de la vida emocional en los primeros años*. México, D. F.: Oxford University Press.
- Taylor, D. A. & Harris, P. L. (1984). Knowledge of strategies for the expression of emotion among normal and maladjusted boys: A research note. *Journal of Child Psychology and Psychiatry*, 24, pp. 141-145.

8.ERANSKINAK

8.1 AUTOEBALUAZIO FITXA

1.AUTOEBALUAZIO FITXA

IZEN-ABIZENAK:

1.go saioa:

| | | | | | |
|---|-------------------------|-----------|--------------|------------|-------|
| Zein emozio sentitu dituzu? (INGURATU HITZA) | Beldurra | Asperdura | Urduritasuna | ilusioa | Poza |
| | Amorrua | Tristura | Plazerra | Bakardadea | Lotsa |
| | Beste emozio bat:_____. | | | | |

-Gorputz adierazpena erabili duzu? BAI / EZ

-Zerbait berria ikasi duzu? BAI / EZ

-Zer ikasi dezute?

2. saioa:

| | | | | | |
|---|-------------------------|-----------|--------------|------------|-------|
| Zein emozio sentitu dituzu? (INGURATU HITZA) | Beldurra | Asperdura | Urduritasuna | ilusioa | Poza |
| | Amorrua | Tristura | Plazerra | Bakardadea | Lotsa |
| | Beste emozio bat:_____. | | | | |

-Gorputz adierazpena erabili duzu? BAI / EZ

-Zerbait berria ikasi duzu? BAI / EZ

-Zer ikasi dezute?

3. saioa:

| | | | | | |
|---|-------------------------|-----------|--------------|------------|-------|
| Zein emozio sentitu dituzu? (INGURATU HITZA) | Beldurra | Asperdura | Urduritasuna | ilusioa | Poza |
| | Amorrua | Tristura | Plazerra | Bakardadea | Lotsa |
| | Beste emozio bat:_____. | | | | |

-Gorputz adierazpena erabili duzu? BAI / EZ

-Zerbait berria ikasi duzu? BAI / EZ

-Zer ikasi dezute?

4.go saioa:

| | |
|---|--|
| Zein emozio sentitu dituzu? (INGURATU HITZA) | Beldurra Asperdura Urduritasuna ilusioa Poza |
| | Amorrua Tristura Plazerra Bakardadea Lotsa |
| | Beste emozio bat:_____. |

-Gorputz adierazpena erabili duzu? BAI / EZ

-Zerbait berria ikasi duzu? BAI / EZ

-Zer ikasi dezute?

5. saioa:

| | |
|---|--|
| Zein emozio sentitu dituzu? (INGURATU HITZA) | Beldurra Asperdura Urduritasuna ilusioa Poza |
| | Amorrua Tristura Plazerra Bakardadea Lotsa |
| | Beste emozio bat:_____. |

-Gorputz adierazpena erabili duzu? BAI / EZ

-Zerbait berria ikasi duzu? BAI / EZ

-Zer ikasi dezute?

6. saioa:

| | |
|---|--|
| Zein emozio sentitu dituzu? (INGURATU HITZA) | Beldurra Asperdura Urduritasuna ilusioa Poza |
| | Amorrua Tristura Plazerra Bakardadea Lotsa |
| | Beste emozio bat:_____. |

-Gorputz adierazpena erabili duzu? BAI / EZ

-Zerbait berria ikasi duzu? BAI / EZ

-Zer ikasi dezute?

8.2 BERDINEN ARTEKO EBALUAZIO FITXA

GAINONTZEKO TALDEEI EBALUATZEKO FITXA

TALDEKIDE EBALUATZAILEAREN IZENAK:

Antzezlarien izenak:

| "X" bidez markatu. | BAI | EZ |
|--------------------------------------|-----|----|
| Gorputz adierazpena erabili dute | | |
| Hitzak erabili dituzte | | |
| Emozioak antzeman dira | | |
| Iraupena egokia izan da (2-3 minutu) | | |

-OHARRAK:

Antzezlarien izenak:

| "X" bidez markatu. | BAI | EZ |
|--------------------------------------|-----|----|
| Gorputz adierazpena erabili dute | | |
| Hitzak erabili dituzte | | |
| Emozioak antzeman dira | | |
| Iraupena egokia izan da (2-3 minutu) | | |

-OHARRAK:

Antzezlarien izenak:

| "X" bidez markatu. | BAI | EZ |
|--------------------------------------|-----|----|
| Gorputz adierazpena erabili dute | | |
| Hitzak erabili dituzte | | |
| Emozioak antzeman dira | | |
| Iraupena egokia izan da (2-3 minutu) | | |

-OHARRAK:

8.3 KOEBALUAZIO FITXA

KOEBALUAZIO FITXA

Antzezlarien izenak:

| "X" bidez markatu. | BAI | EZ |
|--------------------------------------|-----|----|
| Gorputz adierazpena erabili dugu. | | |
| Hitzak erabili ditugu. | | |
| Emozioak antzeman dira. | | |
| Iraupena egokia izan da (2-3 minutu) | | |

-OHARRAK:

8.4 EBALUAZIO JARRAIPEN ORRIA

EBALUAZIO JARRAIPEN ORRIA

1-(EZ/INOIZ) 2-(GUTXITAN) 3-(BATZUETAN) 4-(GEHIENETAN) 5-(BAI/BETI)

| LH 4 EBALUAZIO ORRIA U.D izenburua: "Emozioekin jolasean" | Jardueretan bere emozioak adierazten ditu. | Emozioak ezagutzen eta identifikatzen ditu. | Gainontzekoek adierazten dutena ulertzen du. | Dantza eta antzerkietan erritmoa eramatzen du. | Gorputz adierazpena erabiltzen du. | Taldekideekiko errespetuz aritzen da. | Talde lanean pertsona oro berdintasunez tratatu du. | Talde lanean aritzen da. | Gatazkak komunikazio bidez konpontzen ditu |
|---|--|--|--|--|---------------------------------------|--|---|-----------------------------|---|
| 1-X | | | | | | | | | |
| 2-X | | | | | | | | | |
| 3-X | | | | | | | | | |
| 4-X | | | | | | | | | |
| 5-X | | | | | | | | | |
| 6-X | | | | | | | | | |
| 7-X | | | | | | | | | |
| 8-X | | | | | | | | | |
| 9-X | | | | | | | | | |
| 10-X | | | | | | | | | |
| 11-X | | | | | | | | | |
| 12-X | | | | | | | | | |
| 13-X | | | | | | | | | |
| 14-X | | | | | | | | | |
| 15-X | | | | | | | | | |
| 16-X | | | | | | | | | |
| 17-X | | | | | | | | | |
| 18-X | | | | | | | | | |
| 19-X | | | | | | | | | |
| 20-X | | | | | | | | | |
| 21-X | | | | | | | | | |
| 22-X | | | | | | | | | |